

Jarraipen Txostena

2006. urtea



AURKIBIDEA

Or.

1. AURKEZPENA	6
2. LABURPENA ETA ONDORIOAK.....	8
3. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA	13
3.1. 2006. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK ..	15
3.1.1. 2006. urtean finantza-gauzatutako esku-hartzea.....	15
3.1.2. Programazioaren arabera desbideratzeak	18
3.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK	
ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK.....	22
3.2.1. Programaren aurrerapena inbertsioari dagokionez	22
3.2.2. Tokiko inbertsio-ahalegina eta jasotako diru-laguntzak.....	26
3.2.3. Aurrerapena balioestea ikuspegi integraletik udalen arabera.....	28
3.2.4. Programa aurrera egiten laguntzeko neurriak	33
4. IZARTU II PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA	36
4.1. 2006. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK ..	38
4.1.1. 2006. urtean finantza-gauzatutako esku-hartzea.....	38
4.1.2. Programazioaren arabera desbideratzeak	41
4.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK	
ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK.....	45
4.2.1. Programaren aurrerapena inbertsioari dagokionez	45
4.2.2. Tokiko inbertsio-ahalegina eta jasotako diru-laguntzak.....	48
4.2.3. Aurrerapena balioestea ikuspegi integraletik udalen arabera.....	50
4.2.4. Programa aurrera egiten laguntzeko neurriak	53



**5. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN
INGURUKO MEMORIA56**

**5.1. HELBURUETAN IZANDAKO AURRERAPENA: INBERTSIOA ETA
EGINDAKOA 60**

**5.2. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUETAN IZANDAKO EMAITZAK
ETA ERAGINAK 63**

5.2.1. Lurralde-integrazioa63

5.2.2. Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologiak barne hartzea68

5.2.3. Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea70

5.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea74

5.2.5. Hiriaren irudia eta egoera hobetzea78

5.2.6. Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak83

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Or.

3. KAPITULUA. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

1. Grafikoa: 2006. urtean egindako gastua urte horretarako programaziaren arabera	15
2. Grafikoa: Esku-hartzeko esparruak. 2006an egindako inbertsioaren egokitze-maila urte horretarako gastuaren aurreikuspenaren arabera	16
3. Grafikoa: Eskualdeak. 2006an egindako inbertsioen egokitze-maila urte horretarako gastu-aurreikuspenaren arabera.....	17
4. Grafikoa: Jarduerak. Programazioaren araberrako desbideratzeak. 2006. urtea.....	18
5. Grafikoa: 2001-2006 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.....	22
6. Grafikoa: 2001-2006 denboraldian egindako inbertsioaren ibilbidearen erkaketa	22
7. Grafikoa: Esku-hartzeko esparruak. 2001-2006 epean egindako gastua inbertsio guztiarekiko.....	23
8. Grafikoa: Eskualdeak. 2001-2006 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko	25
9. Grafikoa: Izartu Egitasmoaren ibilerarekiko gogobetetzearen balorazioa	28
10. Grafikoa: Izartu Egitasmoari laguntza teknika emateko gastua 2001-2006.....	33
11. Grafikoa: Laguntza teknikoaren jardura nagusiak 2006. urtean.....	34
12. Grafikoa: 2006. urtean Izartu Egitasmoetan erabilitako komunikazio-, informazio- eta zabalkunde-bitartekoak.....	35

4. KAPITULUA. IZARTU II PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

13. Grafikoa: 2006. urtean egindako gastua urte horretarako programaziaren arabera.....	38
14. Grafikoa: Esku-hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako Izartu Programek 2006 urterako egindako inbertsioa.	39
15. Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako Izartu Programek 2006. urterako egindako inbertsioa	40
16. Grafikoa: Jarduerak. 2004-2008 aldirako Izartu Programen programazioaren araberrako desbideratzeak. 2006. urtea.	41
17. Grafikoa: Udalerriak. 2004-2008 aldirako Izartu Programen programazioaren	42
18. Grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehenengo urtean izandako aurrerapenen arteko konparazioa, guztizko inbertsioaren arabera	45
19. Grafikoa: Esku-hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako Izartu Programek egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera	46

20. <i>Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako Izartu Programek egindako gastua, guztizko inbertsioaren arabera.....</i>	47
21. <i>Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu Programak daraman bidearen inguruko gogobetetzearen balorazioa</i>	50
22. <i>Grafikoa: 2004-2008 aldiko Izartu II programaren laguntza teknikorako gastua</i>	53
23. <i>Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu Programen baitan 2006an egindako laguntza teknikoaren baitako jarduera nagusiak</i>	54
24. <i>Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu Programaren baitan 2006an komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak</i>	55

5. KAPITULUA: HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN INGURUKO MEMORIA

25. <i>Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2006 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.....</i>	61
26. <i>Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2006 aldian egindako burutzeak guztizko inbertsioaren arabera</i>	62
27. <i>Grafikoa: Lurralde-integrazioa. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera 2001-2006</i>	63
28. <i>Grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2006.....</i>	68
29. <i>Grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2006</i>	71
30. <i>Grafikoa: Ekonomia-jarduera. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2006.</i>	75
31. <i>Grafikoa: Hiri-kalitatea eta ingurunea. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2006</i>	78
32. <i>Grafikoa: Ekipamenduak eta zerbitzuak. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2006</i>	83

TAULEN AURKIBIDEA**Or.**

1. Taula: <i>Izartu I Programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku-hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea.</i>	14
2. Taula: <i>2001-2006 aldirako Izartu I Programaren onuradunak egindako gastuen konparazioa</i>	15
3. Taula: <i>2001-2006 epean beste laguntza eta diru-laguntzen garrantzia tokiko inbertsio-ahaleginarekiko</i>	27
4. Taula: <i>Izartu Programetan amaitutako jardueren analisia, esku-hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea.</i>	32
5. Taula: <i>2004-2008 aldirako Izartu Programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku-hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea.</i>	37
6. Taula: <i>2004-2008 aldirako Izartu Programetan amaitutako jardueren analisia, esku-hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea</i>	52

1. AURKEZPENA

2006. urteko Jarraipen Txostenean, Izartu Programaren bi deialdien bidez (2001-2005 Izartu eta 2004-2008 Izartu) hirialdeak berritzeko sustatu diren 118 programa integralen garapenaren laburpen bat egin da eta programaren onura jaso duten udalerrietan lurraldea, gizartea eta ekonomia egituratzeko lanetan izan diren aurrerapenik nabarmenenak jaso dira.

Honen ondoren aurkezten dugun txostenean, lehen aipatutako ekitaldian egindakoa bildu eta zehaztu nahi izan dugu, eta, horrez gain, ikuspegi orokor bat eman nahi izan dugu urte hauetan egin den ahaleginaz, izan den aurrerapenaz, eta lortu diren emaitzez eta ondorioez, 2006. urtean egindako esku-hartzeei buruzko urteko txostenen programetako tokiko arduradunek eman dizkiguten datuak oinarritzat hartuta.

Ildo horretan, gogoan izan behar da Izartu Programaren lehenbiziko deialdiko programazioa (2001-2005) azken urratsetan dagoela 31 programa indarrean dituelarik 2006. urterako; bigarren deialdian (2004-2008) onetsitako programei dagokienez, berriz, bi urte eta erdi igaro dira abian jarri zirela baina, aurreikuspenen arabera, bost urte beharko dira haiek burutzeko, hauen gauzatzearen erdialdean kokatzen direlarik.

Horiek ikusita, udalek aurkeztutako datuen azterketa berezia egin behar da, programak zein unetan abiarazi ziren kontuan izanik; izan ere, txosten honen bidez, ikuspegi orokor bat eman nahi dugu, Izartu programaren bitartez EAEko lurraldea, ekonomia eta gizartea areago bateratzeko sustatu diren jarduera guztiei eman zaien laguntzari buruz.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar Izartu programaren bi deialdien bidez Euskal Autonomia Erkidegoko 87 udalerrian jardun dela, eta udalerri horietan autonomia-erkidego osoko biztanleriaren %85 bizi dela; gainera, egin den inbertsioa 391,5 milioi eurokoa izan da, eta, horietatik, Izartuk %65,5 diruz laguntzen du batezbeste.

2005. urteko txostena bezalaxe, 2006ko Jarraipen Txostenak hiru kapitulu nagusi ditu, laburpen betearazleaz gainera.

Lehenbiziko bi kapituluak *Izartu I Programa gauzatzearen inguruko memoria eta Izartu II Programa gauzatzearen inguruko memoria* dira. Horietan, azterketa tekniko bat egin da, aurreikuspenen arabera programek benetan zenbateko aurrerapena izan duten, nola betearazten ari diren eta, azken batean, ekimen honen bilakaera nolakoa izaten ari den jakiteko, betiere, sailkapen funtzionala -ardatzak eta neurriak- eta lurraldeko sailkapena -eskualdeak eta udalerriak- kontuan izanik. Kapitulu horietan alderdi hauek azalduko ditugu: esku-hartzearen finantza-alderdiak, programazioaren araberrak aldaketa edo desbideratzeak, horren arrazoiak eta aurkitu diren konponbideak, ardatz nagusietan eta udalerrietan izan den aurrerapena, bestelako diru-laguntzak jaso ote diren, laguntza teknikoa jaso den eta Programaren publizitatea bermatzeko hartu diren neurriak.

Hirugarren kapitulua *Hirialdeak biziberritze prozesuen aurrerapenaren inguruko memoria* da. Hor azterketa bat egin da, programek aldatu nahi duten errealitatean zenbateko eragina duten jakiteko, hau da, balioespen kuantitatibo bat egin da Izartu programak lortu nahi dituen kohesioko helburuen arabera izan den aurrerapenaz. Programaren onura jaso duten 87 udalerriak sartu dira prozesuan. Deialdi batean eta bestean parte hartzeko baldintzak desberdin samarrak izan diren arren (horrek bi deialdien arteko konparazio zehatza egitea zailtzen du neurri batean), egiaz, Izartu programaren bidez lorpen ugari egin dira euskal udalerri askotan. Lorpen horiek azpimarratzeko modukoak dira, eta horrexegatik bildu ditugu txosten honetako azken kapituluan. Izan ere, hirugarren kapituluan ahalegina egin dugu Izartu ekimenak oro har izan dituen emaitzak eta nolabait islatzeko eta horren gaineko ondorioak ateratzeko: izandako emaitzak deskribatu ditugu beraien osotasunean, eta eraginpeko eremuetan lurraldea, gizartea eta ekonomia bateratzeko izan duen inpaktua aztertu dugu.

Agiri honetan daturik garrantzitsuenak jaso ditugu laburpen gisa, Izartu Programak udalerrietan hobekuntzak egiteko duen garrantzia ikuste aldera.

2. LABURPENA ETA ONDORIOAK

2006. urtean, Izartu I Programaren onura jaso duten 50 udalerrietatik, 31 programa gauzatzen ari dira, horietatik 12 amaitzen dutelarik aipatutako ekitaldian: *Amurrio, Donostia-Altza, Donostia-Loiola, Elgoibar, Galdakao, Irun, Loiu, Ortuella, Portugalete-Azeta, Santurtzi, Soraluze-Placencia de las Armas eta Urretxu.*

Luzapen egoeran dauden programak urte honetan lortu duten gauzatze erritmoaren areagotzea zera adierazten du: 2007ko ekitaldia amaitzean (azken urtea), diru-laguntza jarduerak behar bezala burutuko dira eta Izartu I Programa dela eta espero den eragina errealitate bat bihurtuko da zenbatetsi den epe barruan.

Horrela, Izartu I Programaren azken urratsetan, udalerri onuradunek ekimen osorako aurreikusita zegoen inbertsio osoaren %90 inguru betearazi dute udalerriek. 2006eko ekitaldian egin den ahalegin ekonomikoak (hori aurreko urteetan egindako ahaleginari gehitu behar zaio) 190 milio euroko inbertsio metatua egiteko aukera eman du. Guztizko aurrekontua 218.322.885 €koa izan da. Inbertsio honi gehitu egin behar zaio Izartu I programapean diru-laguntza jardueren %80 baino gehiagokoa (guztira 304, laguntza teknikoko jarduerak kontuan izan barik) amaiturik dagoela, eta horietako gehienak hirialdeak antolatze eta birgaitze esku hartze esparruaren baitakoak dira.

Era berean, programak bide onetik doaz, egin den gastua urterako aurreikusi den inbertsioari nola egokitzen zaion ikusita: aurreko ekitaldiekin konparatuz, programa bakoitzeko gastuaren gauzatzea handiagoa izan da.

Izartu Programaren lehen deialdiaren momentu honetan gauzatze bideraezina duten jarduerak baztertuak izan dira, ahaleginak beste jardueretan jarritz. Bestalde, jarduera batzuetan atzerapen handiak jarraitzen dute; lehen luzapen urte honetan eta programa amaitzeko urte bat falta denean, garrantzi handia lortzen dutelarik. Honen arrazoi nagusia hasierako epealdian izan den jarduerarik eza da.

Ildo horretan, eta emaitza onak gorabehera, inbertsioen erritmoa ez da berdina izan udalerri guztietan, programa batzuk atzean geratu baitira, hala nola hauek: Alonsotegi, Erandio, Gernika-Lumo, Laudio, Pasaia, Portugalete (San Roke), Sestao eta Valle de Trápaga-Trapagaran. Kasu gehienetan, atzerapen horren arrazoia da aurreko urteetan ere atzeratuta ibili direla jarduerekin zerikusia duten administrazioek edo bestelako erakunde publikoek eman beharreko baimenak eskuratu gabe zituztelako. Elkarrekiko mendekotasun horietako gehienak konpondu dira, eta, beraz, programak aurrez ikusita zegoenaren arabera beteko direla uste dugu.

Gipuzkoa eta Bizkaia dira aurreratuen doazen probintziak: guztira egindako inbertsioa guztizko inbertsioaren %98koa eta %84koa izan da, hurrenez hurren. Araban, berriz, inbertsio osoaren %79koa egin da. Eskualdeen arabera, aurreko ekitadietan burutu zirenei, *Bilbao, Eskualdea, Plentzia-Mungia, Tolosa, Arratia-Nerbioi, Enkarterri eta Markina-Ondarroa*, beste batzuk gehitu zaizkie 2006. urtean zehar: *Bidasoa Beherea, eta Donostia-San Sebastián*.

2004-2008 aldiko Izartu Programen aurrerapenarekin lotuta, udalerri onuradunen ibilbidea beraien programen gauzatzean oso onuragarria da. **Izartu II Programaren onuradun diren 68 udalerriek erdialde honetan gauzatutako gastua diruz lagundutako inbertsio guztiaren ia erdikoa da, 80,4 milioi eurokoa (%46,5ekoa), era berean aipatutako urterako gastu aurreikuspenak %80aren inguruan daude.**

Izartu II Programek hiru lehen urte hauetan jarraitu duten jarduera Izartu I programekin konparatzen baditugu, bigarren deialdiko onuradunen programazioari maila handiagoko egokitzapena erreparatu dezakegu. Horrela, Izartu I programen urteko gastuaren balioztapenaren betetze maila gauzatzearen lehenengo hiru urteetan %57koa da eta Izartu II programetan berriz, %78koa (lehenago seinlatu den bezala).

Bertako poztasuna ageri da lortutako emaitzei esker. 2006. urtean lehen Izartu II Programa, Hondarribia, amaitzen da. Halaber, gauzatzearen hiru urte ondoren honako hau erreparatzen da: Izartu II programaren 273 jardueretatik, %79a dagoeneko hasi da gauzatzen eta 69 amaitu dira jada, hau da, guztiaren %25a. Hondarribiaz gain, bigarren deialdi honen onuradunen ia erdiak jardueraren bat burutu dute.

Hala ere, Izartu I programetan gertatzen den bezala, inbertsioen erritmoa es da berdina izan onuradun programa guztietan. **Lurralde-ikuspuntu batetik, Araba da probintziarik aurreratuen lurralde bakoitzak erabili duen inbertsio guztiari dagokion aurrerapena konparatzen badugu, nahiz eta bi udalerriekin, horietako batek -Vitoria-Gasteiz-gauzatutako inbertsioa aldi osorako aurrez ikusitakoa baino askoz handiagoa izanik. Bizkaian inbertsioaren %50ari ekin zaio eta azkenik, Gipuzkoan gauzatutako inbertsio guztiaren %39a bete egin da.**

Eskualdeen arabera, *Arabako Lautada, Arratia-Nervión, Bilbo, Markina-Ondarroa, Enkarterri* eta *mendebaldeko ingurabidea* aurrez ikusitako inbertsio guztiaren %60a gainditzen dute eta lehen lau eskualdeen kasuan, %70a. Atzeratuenak *Eskuinaldea, Gernika-Bermeo, ekialdeko ingurabidea, Deba behera* eta *Txoriherri* dira. Aurreko urteetan bezala, atzerapen horretarako aipatu diren arrazoiak ez dira udalen baitakoak, kanpokoak baizik (azpikontratutako enpresek obrak hasteko izan duten atzerapena, aurreikusitako jardueren zailtasuna, tartean dauden beste instituzio edo agente batzuen baimenen edo akordioen beharra...); edo, bestela, udalerrian egiten ari diren beste esku-hartze batzuen mende egon dira, izapideak atzeratu dira eta/edo jardueren zailtasuna dela-eta aurretiazko azterketak edo zenbatespenak benetako egoerara egokitu behar izan dira.

Nahiz eta desbideratze txiki hauek izan, **Izartu programen onuradun izan diren udalerrietako arduradunek egindako balorazioa oso ona izan da bi deialdietan. Bi Izartu programen onuradunek lortu duten inbertsio-bolumena nabarmena izan dela kontuan izanik, inbertsio horrek oso eragin mesedegarria izango du EAE osoan lurralde-, ekonomia- eta gizarte-arloan kohesioa lortzeko. Izartu programak bi deialdietan xede izan dituen kohesioaren inguruko helburu orokorrei dagokienez, honakoak izan dira lortutako emaitza eta ondorio nagusiak:**

- **Lurralde-integrazioa:** Hiri-bilbearen komunikazioen hobekuntza, guneen prestaketa erabilpen publikorako eta sarbideen hobetzea dira xede honetarako garatu diren jardueren emaitz nagusiak. Honen helburua onuradun udalerriek hiri-sare eratuagoa eta sarbide errazagoak biztanle guztientzako edukitzea da.

Hala, Izartu I Programari dagokionez, 150.000 m² duen azalera batean egindako hobekuntza-lanak nabarmendu behar dira (azalera horren erdiak baino gehiagok erabilera publikoko gune berri bat hartu du: lorategiak, plazak, oinezkoentzako...) eta komunikazioen hobekuntza 70 kilometroko ibilgailuentzako bide eta 72.000 metroko oinezkoentzako bideen sortze eta berritzeari esker. Izartu II programek, berriz, emaitz interesgarriak aurkezten dituzte baita ere beraien hirugarren urtean: 35.394 m² bide berritu dira, 4 km errepide hobetu dira, 5 km baino gehiagoko pasealeku, espaloi eta oinezkoentzako guneak sortu dira, 8.000 m² gune publiko birgaitu dira, hiriko altzariak eta ekipamenduen hornidura, baita irisgarritasuna hobetzen duten elementuak jarri dira ere.

- **IKTBak:** Bai sare, zentro eta ekipamendu informatikoen instalazioari esker eta bai Izartu eremuan garatutako Informazio Gizartearen sustapen programei esker, teknologia berrien erabilpena herritarrei hurbiltzen ari da, informazioaren eta zerbitzuen sarbidea errazten.

Izartu I programetan IKTBen erabileraren sustapena lortzeko ekipamendu berrien sorkuntza eta martxan jartzea beste jarduera hezigarriekin osatzen dira: guztira 64 ikastaro eta tailer, horietan 5.000 onuradun baino gehiago izan direlarik zuzenean. Izartu II programari dagokionez, udal-zerbitzuak digitalizatzeko proiektuak aurrera jarraitzen dute eta zuntz optikoa sartzeko lehen jarduerak hasi dira dagoeneko.

- **Ingurumena:** Narriatutako inguruneen berreskuratze lanak ari dira garatzen jarduera ezberdinen bidez, bai inguru naturalentan egiten ari den bitartekosunari esker eta bai kale eta auzoetako urbanizazio lanei esker, jasangarritasuna eta ingurunearen babesa onarritzat hartzen.

Izartu I programen zenbait lorpen: gune publikoen 200.000 m² baino gehiago lehengoratu dira, 45.961 m lurrazpiko eta horniduretako sareen linealak berritu dira, 85.166 m² parke eta berdeguneen prestaketa, eta 10.375 m-ko baserri-inguruneak berreskuratu dira, batez ere ibaiertzeak. Izartu II programari dagokionez, orain arte 198.000 m²-ko gune publikoa libratu eta egokitu da, bai ingurune naturalean bai hiri-ingurunean ere. Horrez gain, 97 sare eta zerbitzu hobetu dira.

- **Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta ondarea:** Tokiko ekonomia-jarduera bultzakada bat jaso du ekonomia eta merkataritza garapenaren laguntzarako antolatutako azpiegiturei eta enpresa berrien eta lan sortzearen sustapenari esker. Horretarako prestakuntza eta baliabideak sortzen dituzte.

Izartu I programaren bidez, 48.000 m²-ko azalera prestatu da ekoizpen-jarduerak egiteko, 60 pabiloi eta lokal eraiki dira, 38 ekipamendu sortu dira hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoa sustatzeko, 97 enpresa-proiektu berriri eman zaie laguntza, 177 modulu, ikastaro edo lantegi antolatu dira, 4.000 parte-hartzaile baino gehiago izan dira eta 1.120 lanpostu berri sortu dira. Izartu II programako emaitzai dagokienez, oinezkoentzako gune gehiago sortu eta hirialdea edertu nahi izan da merkatal guneetan. Halaber, industria-guneen egiturak eta sarbideak hobetzeko jarduerak hasi dira.

- **Hiriaren itxura eta egoera:** Xede honen barruan garatutako jarduera pila onuradun udalerrien auzo eta kale askotan benetako hiri-birsortze prozesu bat eratzen joan dira eta ez bakarrik bere irudia eta hiri-egoera, baizik eta erakargarritasun sozioekonomikoa eta, azken batean, ongizate bera eta bere biztanleriaren bizi-kalitatea ere, hobetuz joan da.

Hala, Izartu I programaren barruan, 521 etxebizitza eta eraikin birgaitu dira, 100.000 m²-ko azalera berriz urbanizatu da, zerbitzu-sareen 30.000 m lineal eta 16.000 m oinezkoentzako bide lineal berritu dira. Izartu II programei begira, 54.000 m² azalera berriz urbanizatu da auzoetan eta erdiko kaleetan, eta zerbitzu eta horniduretako sareen 6.500 m lineal berritu dira.

- **Zerbitzuak eta ekipamenduak:** Xede honen barruan honako eraginak implementatu dira: languntza-zerbitzu eta ekipamenduak, kultura- eta aisia-hornidurak, informazio udal-zerbitzuak udalerrietan giza eta komunitario mailan aukera-berdintasuna areagotzeko eta hirugarren sektoreko ekonomia-jarduera garatzeko.

Izartu I programen bidez, gizarte- eta kultura-arloko erabilerako 31 ekipamendu eta zuzkidura berri sortu dira, horiek 32.000 erabiltzaile baino gehiago izan dituzte, eta 119 lanpostu berri sortu dira. Izartu bigarren deialdiari dagokienez, 4 ekipamendu berri paratu dira, eta, hala, kultura- eta gizarte-arloko erabilerako 6.798 m²-ko azalera prestatu dira.

3. IZARTU I PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan aztertuko dugu, batetik, Izartu I programak nola gauzatu diren eta hauen aurreratze maila, luzapeneko lehen urte honetan, gauzatze eremu bakoitzari eta Hirialdeak Biziberritzeko Programa Integralaren onuradun izan diren lurralde bakoitzeko egokitu zaizkion helburuen lorpenean.

Horrenbestez, honako hau azterketa teknikoa da, sailkapen funtzionalari -ardatzei eta neurriei- eta lurraldearen arabera -eskualdeei eta udalerriei- jarraiki egin dena, eta plangintzan aurreikusitakoa 31 programatan (2001-2006 denboraldian 19 programa burututa zeuden) nola garatu den, esku-hartzeak nola gauzatu diren eta, laburbilduz, ekimen honek zein bilakaera izan duen argituko duena. Azterketa honen xede izango da programaren arduradunei aukera ematea tresna teknikoak -plangintzaren ingurukoak- etengabe dagokien errealitatera egokitzeko, aurreko urteetan bezalaxe.

Sailkapen funtzionala IZARTU programek esku hartzeko esparru orokorretan (5 ARDATZ) eta berariazkoetan (20 NEURRI) aurkeztu dituzten jardueren multzo homogeneoan oinarritzen da, eta laguntzen aplikazio globalaren jarraipena eta analisisa egiten laguntzea du xede. Bestalde, lurraldearen arabera sailkapenak programaren onuradun diren eskualdeei eskaintzen die arreta. Eskualde horien baitako 47 udalerri ditugu eta EAE osoan barrena kokatuta daude, hiru lurralde historikoetan: Araban *Kantauri Arabarra*, Bizkaian, *Nerbioi Garaia*, *Arratia-Nerbioi*, *Bilbao*, *Durangaldea*, *Enkarterri*, *Gernika-Bermeo*, *Eskuinaldea*, *Ezkerraldea*, *Markina-Ondarroa*, *Plentzia-Mungia* eta *Txoriherri* eta Gipuzkoan *Bidasoa Behea*, *Debabarrena*, *Donostia*, *ekialdeko ingurabidea*, *Goierri* eta *Tolosa*.

Izartu I programaren azken urratsetan ez daude ia aldaketak jarduera zenbakiarekin konparatuz eta beste aurreko ekitaldietan murrizten joan zen Udalek eskatutako zenbait aldaketen bidez onuradun udalerrien jatorrizko programari dagokionez. Horrela, 2006. urtean programan kokatzen diren jarduerak 330 dira, 2005 ekitaldian baino jarduera bat gehiago, bost jarduera berrien sarreragatik eta lau jardueren ezabapenagatik; azken hauen arrazoia, beraien bideraezintasuna edo lehentasun falta inbertsio gehiago behar duten beste jardueretik.

Bestalde, Izartu I programaren lehenbiziko urtean 368 jarduera egin ziren. Hauen banaketa ardatz eta neurrien arabera ez da ia ezer aldatu eta oraindik ere 2. ARDATZean (Tokiko oinarritzko azpiegiturak, 2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak) elkartzen jarraitzen dute.

1. taula: Izartu I Programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERAK 2006. URTEA	
	Zk.	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	27	%8
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	9	%2,7
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	3	%0,9
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	5	%1,5
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	10	%3,0
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	240	%73
2.1. Garraio-azpiegiturak	19	%5,8
2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura	4	%1,2
2.3. Energiarako azpiegitura	1	%0,3
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	24	%7,3
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	144	%43,8
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	10	%3,0
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	36	%10,9
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	%0,6
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTE- INTEGRAZIOA	30	%9
3.1. Lan-merkatuko politikak	8	%2,4
3.2. Gizarte-integrazioa	9	%2,7
3.3. Aukera-berdintasuna	6	%1,8
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	7	%2,1
4. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK SORTZEA ETA GARATZEA	7	%2
4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak	6	%1,8
4.2. Hiritarren segurtasuna	-	-
4.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	1	%0,3
5. ARDATZA. HAINBAT GAI	26	%8
5.1. Laguntza teknikoa	26	%7,9

3.1. 2006. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK
3.1.1. 2006. URTEAN FINANTZA-GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA

2006. urtean 31 Izartu I programek egindako gastua 26.798.679 eurokoa izan da. Lehen programaren onuradunetatik %40a aurreko ekitaldietan ia amaiturik zeudela kontuan hartzen badugu, programaren batezbesteko gastua jarduera honetan aurreko urtetakoa baino handiagoa da. Horrela, 2001. urtean programaren onuradunak egindako gastua 275.673 eurokoa zen eta 2006. urtean, berriz, 864.474 eurokoa.


2. Taula: 2001-2006 aldirako Izartu I Programaren onuradunak egindako gastuen konparazioa.

URTEA	EGINDAKO INBERTSIO OSOA	AIPATUTAKO URTEAN GAUZATUTAKO PROGRAMEN ZENBAKIA	PROGRAMA ONURADUNEN BATEZBESTEKO GASTUA
2001	14.059.337	51	275.673
2002	34.460.753	51	675.701
2003	46.326.332	50	926.527
2004	30.924.035	48	610.942
2005	36.968.599	45	821.524
2006	26.798.679	31	864.474

2006. urterako egin den tokiko ahalegina urterako programatutako gastuaren lorpen-mailan baieztatzen da, onuradunek egindako gastu zenbatespenen %78a betetzen.

1. Grafikoa: 2006. urtean egindako gastua urte horretarako programazioaren arabera.

2006erako programatutako inbertsioa
34.502.075€




2006ean egindako inbertsioa
26.798.679€

B€

:tan.

Erreparatu dezakegu, **aurreikuspenetara egokitzeko mailari dagokionez**, programen azken hurratsetako programazioa betetzeko zailtasun gehien izan duten jarduerak honako neurri hauek bildutakoak direla: *1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea, 2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegitura, 2.7. Aisia- eta kultura-azpiegitura eta 4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak*; kasu batzuetan programatutako gastuaren heren batera ere iritsi ez direlarik.. Ostera, beste neurri batzuk egokitzen maila altua aurkezten dute beraien urteroko plangintzan, kasu askotan 2006 ekitaldirako programatutako inbertsioa gaindituz. Hau honako neurrien barruan dauden jarduerekin gertatzen da: *1.3 Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea, 2.2 Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura eta 3.1 Lan-merkatuko politikak*.


2. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2006an egindako inbertsioaren egokitze-maila urte horretarako gastuaren aurreikuspenaren arabera.



Lurralde-ikuspegitik, Programen aurrerapena oso desberdina izan da lurraldeen eta eskualdeen artean. Arabako lurralde historikoan, Kantauri Arabarra izeneko eskualdea baizik ez da barne hartu, 2006. urterako gauzatutako inbertsioa programatutako gastuaren %63ra iritsi da. Bizkaian, eskualde onuradunen batezbestekoak errefentzia ekitaldiko gastu-aurreikuspenen %68ra iristen da eta aurreikuspenen egokitze-maila Gipuzkoan %100era hurbiltzen da.

Hala, 2006. urtean programak hasita zituzten eskualdeetatik lau aurreikuspenak gainditu dituzte (Bidasoa Behera, Debabarrena, *Donostia-San Sebastián*, *Durangaldea*) eta bi kasuetan ostera egokitzapen-maila txikiagoa izan da gastu programazioarekin konparatuz (*Gernika-Bermeo* eta *Txoriherri*). Alabaina, eskualde horien barnean, jokaera desberdina izan da udalerri batetik bestera. Hala, programen %45k 2006eko ekitaldiko aurrekontuetan zeuden aurreikuspenak gainditu ditu. Aitzitik, programen %30 2006eko ekitaldirako zegoen aurrekontu-plangintzatik desbideratu da, programatutakoaren %50 baino gutxiago bete baitu; hona udalerriak: Laudio (%43), Deba (%40), Pasaia (%34), Ordizia (%14), Arrigorriaga (%2), Gernika (%0), Alonsotegi (%42), Sestao (%8) eta Erandio (%17). Gainerakoek, berriz, hein handi batean bete dute programatutakoa.

3. Grafikoa: Eskualdeak. 2006an egindako inbertsioen egokitze-maila urte horretarako gastu-aurreikuspenaren arabera.




3.1.2. PROGRAMAZIOAREN ARABERAKO DESBIDERATZEAK

Aurreko atalean ikus daitekeenez, nahiz eta 2006ko programazioa egokitze-maila altua izan, programak banan-banan aztertzen, zenbait udalerrietan desbideratzeak jarraitzen dute nahiz eta Izartu I programaren lehen gauzatze urteetan baino ez hain garrantzitsuak izan. Era berean, beste urte batzuetan bezala, plangintzara egokitzeko maila handiago horren arrazoa tokiko arduradunek programazioan egin dituzten eta euskal gobernuak onartu dituen aldaketak izan dira, aldaketa horiek hasierako zenbatespenak aldatu eta programen ibilbidearen arabera moldatu baitituzte.

Horrela, alde batetik, programetan onartu diren aldaketei dagokionez, 2006. urtean bi luzapen-eskabide jaso dira (eta denboraldi berrirako inbertsioa egokitu da jardueren benetako ibilbidearen arabera); era berean, jardueren arteko aldaketak egiteko 10 eskabide egon dira, eta jardueren artean aurrekontuko aldaketak egiteko edota jarduerak ezabatu edo berriak sartzeko (kudeatze-lanak erraztu delako, bideraezinak izateagatik ezabatu direlako edo beste jarduera batzuek lehentasuna dutela erabaki delako).

Bestalde, aldaketa horien ondorioz eta, era berean, azken urratsetan dauden programak bide onetik doazela ikusita, 304 jardueretatik (laguntza teknikoari dagozkion 26 jarduerak alde batera utzita), 2005 ekitaldirako bezala, bi heren baino gehiago hasi dira gauzatutako aurreikusitakoari jarraiki. Zehazki, 2006 ekitaldian desbideratzeak 83 jardueratan bakarrik izan dira: horietako 26etan gastuan soberakina izan da programazioaren arabera, eta, 57tan, berriz, egin den gastua txikiagoa izan da, -horien artean barne hartu dira batere gasturik izan ez duten 5 jarduerak-.

4. Grafikoa: Jarduerak. Programazioaren arabera desbideratzeak. 2006. urtea.



Zenbaitetan, programatutako gastuaren gauzatze handienaren desbideratzeak aurreko ekitaldietan atzerapena metatuz joatearen ondorio da (Amurrio, Barakaldo-Gurutzeta, Bermeo, Portugalete-Azeta, Santurtzi eta Zaldibar); eta, beste kasu batzuetan, Izartu programaren bidez diruz laguntzeko moduko inbertsioa gainditzen duen inbertsioa egin behar izan delako obraren benetako kostua ordaindu ahal izateko (Eibar, Errenteria, Loiu, Irun eta Ortuella).

Gastu txikiagoa izan dela-eta izandako desbideratzeei dagokienez, ez dute inportantzia handirik 2001-2006 aldirako inbertsio gauzatzearen erritmo altua izan duten programetan ematen dena (Arrigorriaga, Deba, Lezo-Oiartzun, Ordizia eta Urretxu). Hala ere, desbideratze hauek inportantzia handia dute programa amaitzeko urte bat falta denean gauzatutako inbertsio osoa baino atzerago geratu diren udalerrietan. Atzerapenak, aurreko ekitaldietan bezalaxe, tartean dauden administrazioek baimenak ez ematearen ondorioa izan dira, eta atzerapen burokratikoak eta espedienteak izapidetzeko atzerapenak ere izan dira.

- ***Pasaia**ko programa atzeratuta dago aurreko ekitaldietatik, eta oztopo hauek ditu tartean: udalaren adostasuna lortu behar du, ez du lursailik eskura (eta lan hori Portuko Agintaritzari dagokio) eta Navalaldea garatzen ari da. 2005. urtean oztopo horiek gainditu eta gero, Oarsoaldeko Industrialdea-rekin sinatutako hitzarmenari esker Navaldea desblokeatu eta dinamizatu da eta nahiz eta zerbaiteko atzerapenarekin, lanak 2007ren abendurako amaituko dira.*
- ***Valle de Trápaga-Trapagaran** udalerrian, atzerapena izan da Hiri Ordenazioko Udal Plan Orokorra onesteko, eta, horrez gain, baimen batzuk lortu behar direnez desjabetzeko prozesua atzeratzen ari da, baita programako bi jarduera nagusiak abian jartzeko prozedura ere, 2007. urterate luzapen bat eskatuz. Nahiz eta 2006 ekitalderako gastuaren udalerrri itxaropen guztiak bete ez izan, udalerrri arduradunek 2007. urtean arazo guztiak konpontzea eta programa amaitzea espero dute.*

- **Laudioko** udalerriko atzerapenaren arrazoia esku-hartze batzuen zailtasuna da; horren kasua Aldaikoerreka enparantzako jarduerak dira; erdialdeko gune honetan beharrezkoa zen lurpeko aparkaleku bat eraikitzea, bere amaitzea Izartu programapean egingo den enparantzaren urbanizatzearen arabera izango delarik. Horrela azpimarratzen da lana atzerapenarekin doala hasierako aurreikuspenarekiko, baina 2007 ekitaldirako urbanizatzeko lan guztiak amaiturik egotea espero da.
- **Alonsotegiko** Izartu programari dagokionez, arduradunek zenbait arrazoi ematen dituzte atzerapena azaltzeko: alde batetik, atzerago geratu diren jardueretako batzuei ekin ahal izateko, lehenik, ibaiaren bi ertzak lotuko dituen zubi berria egiteko proiektua jarri behar zen abian; zubi horren kostua, bestalde, diruz laguntzeko moduko inbertsioa era nabarmenean gainditzen du. Obra hori egin ahal izateko, lankidetzaz hitzarmena egin da Bizkaiko Foru Aldundiarekin, harekin batera finantzatzeko baitira obra horiek, 2007 ekitaldirako amaiturik egongo direnak. Bestalde, programaren beste jarduerak atzeratu egin dira lanak hasteko beharrezkoak diren baimen faltagatik, nahiz eta gauzatze osoa espero den 2007 urtean zehar.
- **Erandion**, oztopo nagusietako bat Antonio Trueba kalearen handitze urbanizazio-lanak egiteko lurzorua erabilgarritasun zen, lanen eragina zela eta. Jabeekin akordio batera iritsi eta gero gauzatzearen azken urterako aurreikusitakoa burutu ahal izando da. Lurzorua lortzeko zailtasun hauek beste jardueretan ondoriak eragin dituzte; dena den, aipatutako ekitaldian aurrera jarraitu dute eta 2007. urtean amaitzea espero dira.
- **Portugalete San Rokeko** programan zenbait oztopo izan da agiri teknikoak idaztea oso zaila suertatu baita, obrek Metroko 2. linean eragina izango dutelako. Interferentzia horiek teknikoki konpondu ziren 2004. urtean eta obrak betearazteko proiektua onetsi eta abian jarri ahal izan zen. 2006 urtean, desbideratzearen arrazoia lanak berandu hasi direlako jarraitzen duen atzerapena da; hala ere, hauen gauzatze erritmoa areagotu ondoren espero da 2007 ekitaldian (programaren gauzatzea amaituko den urtea) antzemandako desbideratzea bideratzea.


- **Sestaoko** udalerrian izan diren desbideratzeak programaren hastapenetatik izan diren arazoen ondorio dira: izan ere, atzerapenak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Plan Zuzentzailea onesteko garaian, eta gaur egun ere udalaren eta Sestao Berri-ren arteko eskumenak antolatze prozesuan ere atzerapenak daude. 2006. urtean aurrerapauso garrantzitsuak eman dira Gran Via-ren lehen fasea desjabetzeko, bideko sistema orokorraren gauzatzeagatik ukitutak izan diren ondasun eta eskubideen zerrendaren akordiora iritsiz; guzti hau txostenen lorpena erraztuko du 2007 ekitaldian. Halaber, zaharberritzeko jarduerak bide onetik joan daitezten, bertan bizi direnek borondate ona izan behar dute hobekuntza-lanei ekiteko, eta hor gizarte- eta ekonomia arazoak bateratzen dira; horien ondorioz, nahiz eta diru-laguntzaren ehunekoa altua izan, sarritan, bertako biztanleak ez dira erraz adoretzen hobekuntzei ekitera. *Arazo hau konpontzeko, zenbait larrialdiko esku-hartze espero dira birgaitze osoa ordainduz.*
- **Gernika-Lumoko** Izartu programan zailtasunak izan dira hasieratik IDIGA industria-pabiloi zaharra birgaitzeko eta moldatzeko proiektuak atxikipen asko zituelako eta erakunde eskudunak obrari ekiteko behar ziren baimenak eman behar zituztelako, zehazki, honako hauek: Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan Saileko Errepideen Zuzendaritza Nagusia, Eusko Trenbideak eta Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritza. Udalak eraikuntzaren eraistea eta gauzatzea erabaki ondoren, bateraezintasun gehiago azaldu dira eta onespenez gehiago lortzeko beharra ere bai, eta, horrenbestez, tokiko arduradunek programa 2007. urtera arte luzatzeko eskabidea egin dute; oraindik ez dira eraikin berria egiteko beharrezkoak diren baimenak lortu, itxaropenak eskasak direlarik programa amaitzeko falta den epe mugatua dela eta.

3.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK

3.2.1. PROGRAMAREN AURRERAPENA INBERTSIOARI DAGOKIONEZ


2001-2005 denboraldian, Izartu I programaren onura jaso duten udalerriek ekimen osorako aurreikusita zegoen inbertsioaren %90 inguru betearazi dute. 2006ko ekitaldian egin den ahalegin ekonomikoak (hori aurreko urteetan egindako ahaleginari gehitu behar zaio) 189.537.735 euroko inbertsio metatua egiteko aukera eman du; guztizko aurrekontua 218.322.885 eurokoa dela aintzat hartuta, %87, alegia.

5. Grafikoa: 2001-2006 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.




Ibilbide historikoari begira, nabarmena da, aurreko ekitaldian bezala (2005. urtea) programak betearazteko abiada arinduz doazela programek aurrera egiten duten heinean, eta, era berean, atzerapenak izateko arrazoi gehienak gainditu direla. Izartu programaren lehen deialdiaren une hauetan ia bazterturik geratu dira bideraezinak ziren jarduera gehienak (aurreko idatz-zatian zehaztutako aldaketa-eskabideak eta birprogramazioak). Hala, beraz, ahalegin guztia gainerako jardueretara eta jarduera berri batzuetara bideratu da, lehen ikusi dugunez, oraindik ez baitira konpondu xedatutako esku-hartzeak geldiarazita dituzten oztopoak.

6. Grafikoa: 2001-2006 denboraldian egindako inbertsioaren ibilbidearen erkaketa.



Esku-hartze eremu desberdinei jaramon eginez, neurri guztiak aurreikusitako inbertsio guztia gauzatzearen %80a gainditzen dute, 4.1. Tokiko oinarrizko zerbitzuak eta 3.2. Gizarte-integrazioa neurriak izan ezik; hauen gauzatze maila %38 eta %75ekoa da, hurrenez hurren. Gauzatze ekonomikoaren arabera, 2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea, 2.3. Energia-azpiegitura, 2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura eta 3. Gizalegezko hezkuntza eta -prestakuntza neurriak amaiturik egongo litzateke eta hurrengoak, berriz, beraien gauzatzea burutzeko oso hurbil: 1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea, 1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea, 2.1. Garraio-azpiegiturak informazioaren gizartea, 3.1. Lan-merkatuko politikak laboral eta 3.3. Aukera-berdintasuna.

7. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2001-2006 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.




Lurralde-ikuspegitik, Gipuzkoa eta Bizkaia dira aurreratuen doazen probintziak. 2001-2006 aldian guztira egindako gastua guztizko inbertsioaren %98,7koa eta %84,6koa izan da. Araban, berriz, inbertsio osoaren %79koa egin da.

Eskualdeen arabera, 2004. urtean, *Bilbao, Eskualdea eta Plentzia-Mungia* burutu ziren, eta 2005ean, berriz, *Tolosa, Arratia-Nerbioi, Enkarterri eta Markina-Ondarroa*. 2006 ekitaldian *Bidasoa Behera eta Donostia-San Sebastián eskualdeak* amaitu dituzte beraien jarduerak. Beste batzuei gutxi falta zaie programak burutzeko, gauzatzearen %90a baino gehiagorekin: *Deba Barrena, Goierri eta Durangaldea*. Atzeratuenak, berriz, *Txoriherri* (%60), *Gernika-Bermeo* (%63) eta *Kantauri Arabarra* (%79) dira.

Udalerriei dagokienez, atzeratuen daudenak lehenago ikusi ditugunez, orain aurreratuen daudenak hartuko ditugu hizpidea. Hala, **aurreko ekitaldietan amaitu ziren 19 programez gain** (Etxebarriko programa 2002. urtean; Bilbao-Otxarkoaga eta Ermuko programak 2003. urtean; Bilbo Zaharreko, Güeñesko eta Mungiako programak 2004ean; Balmaseda, Bermeo, Berriz, Gordexola, Karrantza, Leioa, Mendaro, Muskiz, Mutriku, Ondarroa, Urduña-Orduña, Tolosa eta Zegama 2005ean), **ekitaldi honetan 12 Izartu programa burutu dira**: Amurrio, Donostia-Altza, Donostia-Loiola, Elgoibar, Galdakao, Irun, Loiu, Ortuella, Portugalete-Azeta, Santurtzi, Soraluze-Placencia de las Armas eta Urretxu.

Programak bukatu dituzten udalerri horiekin batera, honako hauek programa osorik burutzear daude (guztizko inbertsioaren %80 baino gehiago eginda baitute): Basauri, Deba, Eibar, Errenteria (azken honek 2006. urtean amaitzen du, diru-laguntza ordaintzeke gelditzen delarik), Legazpi, Lezo-Oiartzun eta Ordizia.

8. Grafikoa: Eskualdeak. 2001-2006 epean egindako gastua, inbertsio guztiarekiko.



3.2.2. TOKIKO INBERTSIO-AHALEGINA ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

2001-2006 aldian egindako guztizko gastuari dagokionez, %30 udalaren inbertsio-ahaleginaren ondorioa da, 57 milioi euro inguru, hain zuzen. Onuradunen artean ahalegin hori desberdina izan da batera finantzatzeko tasaren arabera, Dekretuak oro har ezarri duenez diruz laguntzeko moduko inbertsioaren %50 laguntza egongo baita, betiere, alde batera utzita gizarte-egoera ahulekotzat jo den eskualderen batean dauden udalerrriak edo eremuak, horietan laguntza %75ekoa izango baita.

Eusko Jaurlaritzak jarritako diru-laguntzaren ehunekoa handia bada ere, tokiko ahalegin ekonomikoak aipatu diren zenbatekoak gainditzen duela, programak ez baitu onartzen inbertsioaren BEZa tokiko erakundeek beren gain hartu behar dutenik. Hortaz, bada, - aurrekontuak baliatuz betearazi diren 57 milioi euro horiei zerga horri dagozkionak gehitu behar zaizkiola, udalak bere gain hartu baitu hori osorik. Era berean, programa abian jarri zenetik adierazi denez, udal batzuek hasieratik beren gain hartu behar duten kostua handiagoa da Izartu programarekin hartu duten inbertsioa baino, eta egoera hori orokortzen ari da, burututa dauden jardueren emaitza ekonomikoak ikusita. Horren guztiaren eraginez, **aldi honetako eta gelditzen den zatiko inbertsioaren bolumena jarraipenerako txostenetan eskainitako datu ekonomikoena baino handiagoa izango da**. Horrek agerian uzten du, berriz ere, udalbatzek hirialdeak biziberritzeko prozesuen inguruan hartutako konpromisoa.

Bestalde, programa bateragarri da beste diru-laguntza eta laguntza batzuekin, gainerako administrazio eta erakunde publikoetatik etor daitezkeenekin, baita Jaurlaritzatik bertatik etor daitezkeenekin ere, eta hori kasu batzuetan oso lagungarri izaten da udalak finantzatu behar duen zatiari aurre egiteko.

Programak gauzatzen emandako sei urte hauetan guztira 18.386.978 euro jaso dira Izartu programaren baitan barne hartutako jardueren laguntzeko bestelako laguntza edo diru-laguntzen bidez. Programa onuradunek 2001-2006 aldian egin duten inbertsioa 190 milioi euro ingurukoa izan dela aintzat hartuta, beste laguntza hauek programapean gauzatutako inbertsio osoaren %10a adierzten dute. Udalen inbertsio-ahaleginaren %32 baizik ez da bete finantzatzeko beste iturri batzuen bitartez.

Bestalde, 2006. urtean aurreko ekitaldian baino diru-laguntza gutxiago jaso da, hain zuzen, 2.519.954,59 euro eskuratu dira guztira, kopuru txikiagoa nahiz eta aipatutako ekitaldian 31 programa bakarrik indarrean egon. Urte horretan egindako gastua 26,8 milioi eurokoa denez, datu hori ikusita zera esan nahi du: 2006. urteko udal-ekarpenaren (8 milioi) laurdena baino zertxobait gehiago finantzatu dutela beste instituzioek edo programak, bestelako diru-laguntza gisa. 2005. urtean, jasotako bestelako laguntzak urtean udalak egindako inbertsio-ahaleginaren erdi inguruan suposatzen zuten.

3. taula: 2001-2006 epean beste laguntza eta diru-laguntzen garrantzia tokiko inbertsio-ahaleginarekiko


	2001-2003 epea	2004. urtea	2005. urtea	2006. urtea
Gauzatutako inbertsioa	94.846.421	30.924.035	36.968.599	26.798.679
Gutxi gorabeherako Izartu laguntza (%70)	66.392.495	21.646.824	25.878.020	18.759.075
Gutxi gorabeherako tokiko inbertsio-ahalegina (%30) -BEZa barik	28.453.926	9.277.210	11.090.580	8.039.604
Udalek jasotako beste laguntzak	4.225.740	5.553.555	6.087.728	2.519.955
Beste laguntzen %a tokiko inbertsio-ahaleginarekiko	%15	%60	%55	%31

Bestalde, 2006. urtean, 4 programa bakarrik adierazi dute honelako laguntzaren bat jaso izana. Bizkaiko Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Saila bi kasuetan diru-laguntza eskaini duen organismoa da, 2.1. *Garraio-azpiegiturak informazioaren gizartea* neurrian kokatutako sarbide berriekin zerikusia duten jarduerari dagokielarik.

3.2.3. AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI INTEGRALETIK UDALEN ARABERA

Programak aurrera nola egin duen ikusita eta bere osotasunean hartuta, **tokiko arduradunen ustez programen martxa oso positiboa izan da, batez ere ekitalde honetan amaitu dutenen artean.** Onuradunen %81ren aburuz, 2006. urtean gauzatutako 31 programei dagokiona, oso positiboak izan dira ekimenean izandako parte-hartzea, jarduerak gauzatzeko erritmoa eta ezarritako helburuak betetzeko bidean izandako emaitzak.

9. Grafikoa: Izartu Egitasmoaren ibilerarekiko gogobetetzearen balorazioa



Horrela, programazioari buruzku desbideratzeak sortu arren, programa amaitzeko urte bat falta denean garrantzi handia lortzen dutelarik, onuradun gehienek tokiko arduradunek urtean zehar edukitako "inplikazio handia" nabarmendu dute eta beraien ustez atzerapenaren arrazioa "hasierako denboraldian izandako jarduera ezd" da. Era berean, oztopoak gaindutu egin direla azpimarratzen dute, **programaren amaitzea eta burututako helburuen erdiespenari begira baikor izaten:** *"Erdietsitako konpromisoa eta funtzionamenduaren aurreikuspenak eta itxaropenak ikusita, programa erralitate bihurtuko da espero den epe barruan"; "Programa jasotzen dituen jarduera guztiak amaiturik daude edo 2007. urtean amaitzeko bideratuak daude"; "Programaren balioespen bat egiten bada birprogramazioa ikusita, kalifikazioa egokitzen jo behar da, urte honetako lan-erritmoaren areagotzeak programa amaitzean proposatutako jarduerak behar bezala bukatuak geldituko direla adierazten baitu".*

Bestalde, aldaketak eta/edo birprogramazioak positiboki balioztatu dira, "jardueren kontzentrazioa birprogramazioa eta gero udalen programa izan duen eragina hasierako programarentzako aurreikusita zegoena baino nagusiagoa izango deld" kontuan hartuta.

Zenbait arduradunek, Pasaia bezala, programa hasieran izandako arazoak beste erakundeekin departamentuen arteko oso elkarlan positiboa mantentzera behartu dutela adierazi dute: *"balioztatzea momenturarte positiboa izan da erakunde publikoen arteko helburuak adostea lortu baita", "Programaren garapena positiboki balioztatu behar dugu lehendabizi Portuko Agintaritzaren borondatea ontzi-sektorean mugitzeko aukera ematen baitu; ontzigintza ez da zehatz-mehatz komertziala eta horregatik ez dago bere lehenetsuen artean. (...) Izan ere, programa honek Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorena eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailaren arteko elkarreko jardura suposatzen duela azpimarratu behar da.*

Hala ere, eta ildo honetan oraindik ere konbundu gabeko arazoak jarraitzen dute, bereziki jardueren geraldarekin zerikusirik daukatenak (proiektuen gauzatzerako beharrezkoak diren onartzeak lortu ezinagatik, hauen edo programa guztiaren bideraezintasuna agerian jartzen dutelarik. Honen adibide bat Gernika-Lumo da: *"IDIGA eraikinaren eraistarekin batera bideraezintasun eta onartze premia berriak programaren marta atzetaritzen dute berriro. Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritzaren azken ezezko erabakia jardueraren bideraezintasuna agerian utzi du; horregatik programaren gauzatzea ezinezkoa da momento honetan"*. Baimen faltarekin batera, zenbait tokiko arduradunek programaren beste iritzi txar bar adierazi zuten: hiri-birsortze eta berritze prozesuetan aurrerapen handiago baten mugaketa laguntzen mugak direla eta. Horrela, eskasak gertatu ahal dira aurreikusitako esku-hartze guztiak gauzatzerakoan.

Hala ere, denek adostasuna azaltzen dute **lagungarria izan delako hiri-, gizarte- eta ekonomia-garapenerako udalerri onuradun askotan**. Hala, azpimarratu dutenez, *"dudarik gabe gune narriatuak onera ekartzeko baliogarriak izan dira"; "Udalerriaren irudia guztiz aldatu da"; "Garapen sozio-ekonomikoari laguntzen ari diren zenbait gai jarduten ari dira bere osotasunean"; "Euskal Herriko mapan baliabide berriak jarri ditu"; "Berriro ere adierazi behar da udalerriak gestionatu duen proiekturik handiena eta bere ibileran aurreikusi den inbertsiorik nagusia izan dela"; "Digital distantzia murrizten ari da"; "Pertsonei beraien etorkizuna hobetzeko posibilitatea ematen ari zaie".*

Balantzea oso positiboa izatea jarduerak garatzearen ondorioz lortutako emaitzei zor zaie.

- **Lehenik eta behin**, lehen ere adierazi dugunez, **31 programa amaitu dira 2006eko abenduaren 31rako**. Horrela, aurreko ekitaldietan amaitu ziren 19 programez gain, 2006 ekitaldian 12 Izartu programa amaitu dira: Amurrio, Donostia-Altza, Donostia-Loiola, Elgoibar, Galdakao, Irun, Loiu, Ortuella, Portugalete-Azeta, Santurtzi, Soraluze-Placencia de las Armas eta Urretxu.

Parte-hartzean, udalerri hauek azpimarratzen dute nola **Izartu oso laguntza garrantzitsua izan dela eragin handiko proiektuak azaldu eta burutzeko**. Horrela, Irún adierazten duen bezala, *"Hirian zehaztu diren zenbait behar gauzatzeko benetako aukera ikusi dute zabalik, Erkidegoko beste herriei batera, hirigintza-hobekuntzei zuzenduta dagoen ekimen honetan parte hartzen"*. Era berean, Galdakao eta Soraluze- Placencia de las Armaseko udalarentzako, *"Izartu Soraluzeren birsortze eta zaharberritzerako eragilea izan da (...) ahalegin ekonomiko handia baliabide gutxi dituen udal batentzako (...) eta Eusko Jaurlaritzaren baterako finantzaketa barik, ez ezinezkoa, baina bai pentsaezina izango zen"*. Ortuellak ere ildo hau jarraitzen du, *"Izartu II programaren balioztatzea positiboa da Ortuellako udalarentzako, bultzakada eta laguntza ekonomikoa suposatu baitu hirigintza-hobekuntza jarduerak garatzeko"*; halaber, herritarren iritzia positiboa ere izan dela nabarmendu behar da: *"(..) beraien ustez, Izartu programak ingurunea eta hiri-irudia hobetzera lagundu du, lehen gune narritua eta erabilgaitza zena toki publiko batean bihurtuz"*.

Gure herri eta hirien irudiaren hobekuntza tokiko arduradunek gehien balioztatzen duten aldeetariko bat da, herritarren bizi-kalitatean duen **eraginagatik**. Donostia-San Sebastiáneko programentzako (Altza eta Loiola), gauzatutako jarduera gehienak hiri-irudia hobetzera bideratuak egon dira eta hori lortu ez ezik, herritarren bizi-kalitatea areagotu dute, hiri-sare zaharkituak ordezkatzeko eta gune publikoak sortzen.

Loiun, ekipamendu eta azpiegitura berriak eta aurreko inguru faktore negatiboen murrizketa bizi-kalitatea areagotu dute jarduerak burutu diren guneetan.

Programak amaitu dituzten onuradun askorentzat, Izartu eraginaren gakoa giza-, gizarte- eta ekonomi-mailan bateratu duen elemento da. Zentzu honetan, Elgoibarren, programari esker udalerriak bere jarduerak areagotu ditu, auzo eta biztanle guztien artean giza- eta ekonomia-kohesio alorrean. Urretxu adierazten du nola gauzatutako jarduerak gizarte-kohesioaren zenbait arazo nagusiak konpontzera lagundu dute: *"bizi-kalitatean egindako hobekuntzen bidez azpiegitura berri, osasun eta sarbide kondizio eta arkitektura oztopoen ezabapenari esker."* Amurriok udalerrian izandako garapen ekonomikoa eta soziala azpimarratzen du, nabarmenki jarduera ekonomikoan eta lan sortzean edo herriaren hobekuntza enplegarritasun arloan. Santurtziren arabera, egistasmoa gauzatzean, esku-hartze fisikoko lagungarriak izaten ziren esku-hartze sozio-ekonomikoentzako, azken hauek programaren eragin nagusia direla kontutan izanda: *"dinamika positiboa sortu du identifikazio, gizarte-kohesio eta itxaropen hobekuntza arloetan".* Portugaleten ere, Azetan gauzatutako Izartu programa, elementu bateragarria izan da maila guztietan, nahiz eta esku-hartzea fisikoa izan: *"Argi dago gauzatutako jarduera udalerrriaren ardatz antolatzailea dela, Azeta eta udalerriko merkataritza-gunearen artean oinezkoen zirkulazioa errazten, ibilgailuen trafikoarekin bateragarria, eta seguritatea eta erosotasuna hobetzen; guzti hau gizarte eta ekonomia kohesioa zuzenean indartzen du bere eremu guztian."*

- **Bigarrenik, zenbaketa orokorra egiten hasita, ikus dezakegu Izartuk onartutako jardueren arteko 244 amaitu direla 2001- 2006 aldian.** Horrek esan nahi du Izartu programaren baitan finantzatutako proiektuen %80 amaitu direla, laguntza teknikoaren inguruko jarduerak alde batera utzita betiere. Horri jarraiki, ikus dezakegu amaitutako jardueren %80 (194 jarduera) 2. Ardatzekoak (*Tokiko oinarritzko azpiegiturak*) direla, eta erdia baino gehiago, 124 jarduera, *2.5 Antolatze eta birgaitze azpiegiturak* neurri barruan.

4. taula: Izartu Programetan amaitutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea.


ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUERA GUZTIAK	AMAITUTAKO JARDUERAK	%
1. ARDATZA EKOIZPEN-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	27	20	%74
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	9	5	%56
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	3	2	%67
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta arte-enpresei laguntzea	5	4	%80
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	10	9	%90
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	240	194	%81
2.1. Garraio-azpiegiturak	19	15	%79
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazioaren gizartea	4	4	%100
2.3. Energiarako azpiegitura	1	1	%100
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	24	18	%75
2.5. Antolatze eta birgaitzeko azpiegiturak	144	124	%86
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	10	5	%50
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	36	25	%69
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	2	%100
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTE-INTEGRAZIOA	30	28	%93
3.1. Lan-merkatuko politikak	8	8	%100
3.2. Gizarte-integrazioa	9	8	%89
3.3. Aukera-berdintasuna	6	6	%100
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	7	6	%86
4. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK SORTZEA ETA GARATZEA	7	2	%29
4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak	6	1	%17
4.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	-	1	%100

3.2.4. PROGRAMAK AURRERA EGITEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Izartu I programaren 50 onuradunen artean, 26k laguntza teknikoaren kontrataziorako aurreikusita zegoen gastua erabili dute, zenbait udalerrietan kontratazio hori udalerrientzako bakarrik diren baliabideen bidez izan arren, programaren erantzukizunik gabe.

Aurreko txostenetan adierazi zen bezala, 2003 ekitaldian laguntza teknikoaren inguruko jardueretan eta programari laguntzeko neurrietan inbertsio gehien egin zen urtea izan zen, ziurrenik aldi horretan izan zuelako Izartu programak aurrerapen esanguratsua, aurreko bi urteekin alderatuta. Izan ere, urte horretan jarri ziren abian hasteko zeuden programa eta jardura gehienak.

10. Grafikoa: Izartu Egitasmoari laguntza teknikoa emateko gastua 2001-2006




Horrela, 2006. urtean, 31 programekin indarrean, laguntza teknikoaren inbertsioa zertzobait txikiagoa izan da, udal bakoitzeko 2.800 eurokoa gutxi gorabehera; aurreko ekitaldietan, berriz, laguntza teknikoaren batezbesteko gastua 6.000 eurokoa baino zertzobait handiagoa izan zen (5.295 euro 2001. urtean, 6.487 euro 2002an, 9.871 euro 2003an, 4.398 euro 2004an eta programa bakoitzeko 5.180 euro batezbeste 2005. urtean).

Ildo horretan, 2006. urtean 17 programek izan dute laguntza teknikoko zerbitzua, gauzatutakoaren inguruko urteko txostenak adierazten duten bezala, baina horietako 7k baizik ez dute Izartu programaren laguntza teknikoaren neurriko gastua aurkeztu.

Laguntzaren baitan garatutako lanen artean, Izartu programa bere osotasunean kudeatzearekin zerikusia duten zereginak dira programa gehienek kontratatzen dituztenak (%59). Honakoak, hain zuzen ere: *jarduerak zedarritzen eta zehazten laguntzea; kudeaketarako eta programaren araudia betetzeko aholkuak ematea; programa, esku hartzen duten udal-esparruak eta bestelako erakundeak eta/edo onuradunak koordinatzeko lanerako tresnak eskaintzea; eta Izarturen kudeaketarekin zerikusia duten agiri guztiak prestatzea (gauzatutakoaren inguruko urteko txostenak, gastuen egiaztatzea, luzapenak, aldaketak eta abar eskatzeko orriak, azken ebaluazioak...).*

Bigarren tokian, garrantziaren arabera, Izartu programaren baitako berariazko jardueren jarraipena egiten laguntzeko jarduerak eta obra-zuzendaritzako jarduerak laguntza teknikoak bere gain hartutako zeregin guztien %53 osatzen dute; horren ondoren, berariazko esparruetako aholkularitzaren kontratazioa dator (azterlan teknikoak, ingeniariak) laguntza tekniko osoaren %23 baita.

11. Grafikoa: Laguntza teknikoaren jardura nagusiak 2006. urtean




Bestalde, jarduerak nabarmen egin dutenez aurrera, Izartu programaren bidez finantzatutako jardueren publizitatea egiteko eta horiek hedatzeko jarduerak ere ugartu dira programei laguntzeko neurrien artean. Aurreko urtean bezala, **ia programa onuradun guztiek (31 programatik 29k) uztartu dituzte Izartu programaren baitako jardueren berri emateko eta horien publizitatea egiteko hainbat bide eta neurri. Gainera, arduradunek Izartu programako jardueren berri emateko eta publizitatea egiteko neurri eta bide batzuk ezarri dituzte.**

Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretua aintzat hartuta, programarekin zerikusia duten publizitateko neurrietarako finkatutako legezko irizpideak betez, **Izartu programaren edukia, ekimena eta laguntza aditzera emateko gehien erabili diren bideak eta tresnak honako hauek izan dira: esku hartutako alderdietan jarritako publizitate-txartelak, -panelak edo -taulak, pixkanaka informazio-plaka iraunkor bilakatuz joan direnak (%93).**

Honakoak dira udal onuradunek hartu dituzten hurrengo neurriak, garrantziaren arabera: lehenik, udaleko informazio-kanaletan aditzera ematea, hala nola, tokiko webetan, buletinetan eta aldizkarietan, eta postontzietatik banatzea (%39); gero, publizitate kanpainak, artikulua herri-egunkarietan eta beste ikus-entzunezko komunikabideetan (%26), eta beste publizitate bide zehatz eta pertsonalagoak, informazio bilerak eta herritarrei jarduerak azaltzeko antolatzen diren hitzaldiak bezala (%26). Azken tokian (%16), Izartu programari buruzko publizitatea eta informazioa emateko udalerriek erabiltzen duten beste neurri nabarmen bat: Eusko Jaurlaritzaren programako arduradunekin lankidetzan, informazio-lana egitea Izartu "produktuetan" (prestakuntzako diplomak, ordenantzak, informazio-triptikoak, turismo-liburuxkak, proiektuen webak) (%28).

12. Grafikoa: 2006. urtean Izartu egitasmoetan erabilitako komunikazio-, informazio- eta zabalkunde-bitartekoak.



4. IZARTU II PROGRAMA GAUZATZEAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan 2004-2008 aldirako Izartu programen gauzatzearen garapena aztertuko da, ekimenaren bigarren deialdiari dagozkionak, eta horiek abian jarri zirenetik erdialdi honetan urtean izan duten aurrerapena. Aurreko kapituluaren bezala, aurrerapen hori sailkapen funtzionalari -ardatzei eta neurriei- eta lurraldearen arabera -eskualdeei eta udalerriei- jarraiki aztertuko dugu, Izartu II ekimenaren onuradun diren 68 programetan.

2004-2008 aldirako Izartu programen esku hartzeko esparruak ez dira lehenengo deialdikoekin berdinak. Lau ARDATZEN (produkzio-ingurunearen, tokiko oinarritzko azpiegituren, gizarte-integrazioaren eta tokiko zerbitzuen eta laguntza teknikoaren) eta 20 neurriren inguruan bildu ditugu. Izartu I programarekin alderatuta dagoen desberdintasun nagusia da lehen 3. eta 4. ARDATZEAN sartuta zeuden neurriak orain ARDATZ bakarrean bildu direla (3. ARDATZEAN). Bestetik, 3. ARDATZAREN (Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak) barruko hiru neurriren inguruan ez da jarduera bakar bat ere aurkeztu; hain zuzen, honako hauek dira: *3.3 Hiri-hezkuntza eta -prestakuntza*, *3.4 Hiritarren segurtasuna* eta *3.5 Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak*. Aheri dela-eta, ez dira aztertu horien emaitzak.

Sailkapen berri honetan 330 jarduera biltzen dira; beraz, 2005ko ekitaldiarekin alderatuta, lau jarduera gutxiago ditu, 2006. urtean zehar programetan zenbait aldaketa egin direlako. Aldaketa horiek ez dute jardueren banaketarekiko aldakuntza nabarmenak adierazten, aurreko deialdiarekin gertatzen den bezala, jarduera eta inbertsio gehienak 2. ARDATZAN (tokiko oinarritzko azpiegiturak) kokatzen baitira. Alabaina, kontzentrazioa are handiagoa da 2004-2008 aldirako Izartu programetan, 2. ARDATZ horretakoak baitira inbertsioaren %96 eta jardueren %78. 1. ARDATZAK (Produkzio-ingurunea) jardueren %4 biltzen du eta 3. ARDATZAK (Gizarte-integrazioa eta tokiko zerbitzuak) jarduera guztien %1.

5. taula: 2004-2008 aldirako IZARTU programetan aurkeztutako jardueren analisia, esku hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea.

ARDATZAK ETA NEURRIAK	2006. URTEKO IARDUERAK	
	Zk.	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA	14	%4
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea	7	%2
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	2	%1
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	1	%0
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	4	%1
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	256	%78
2.1. Garraio-azpiegiturak	21	%7
2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura	4	%1
2.3. Energiarako azpiegitura	6	%2
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	48	%15
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	159	%48
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	5	%2
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	11	%3
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	%1
3. ARDATZA. GIZARTE-INTEGRAZIOA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	3	%1
3.1. Gizarte-integrazioa	1	%0,3
3.2. Aukera-berdintasuna	1	%0,3
3.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	-	-
3.4. Hiritarren segurtasuna	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-
3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	-	-
3.7. Tokiko beste zerbitzu oinarritzko batzuk	1	%0,3
4. ARDATZA. LAGUNTZA TEKNIKOA	57	%17
4.1. Laguntza teknikoa	57	%17


Lurraldearen arabera sailkapenari dagokionez, udalerri onuradunak hiru lurralde historikoetakoak ditugu: 2 udalerri Araban, 37 Bizkaian eta 29 Gipuzkoan. Honakoak izan dira eskualde onuradunak (aurreko deialdian ez ziren lau eskualde agertzen dira oraingoan): Araba -Arabako Lautada-, Bizkaia -Nerbioi Garaia, Arratia-Nerbioi, Bilbao, Durangaldea, Enkarterri, Gernika-Bermeo, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia eta Txorierri- eta Gipuzkoa -Debagoiena, Bidasoa Behea, Debabarrena, Donostia-San Sebastián, mendebaldeko ingurabidea, ekialdeko ingurabidea, Goierri, Tolosa eta Urola Kosta.

4.1. 2006. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK

4.1.1. 2006. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZEA ETA DESBIDERATZEAK

2006. urtean 2004-2008 aldirako Izartu programaren 68 udalerri onuradunek egindako gastua 43.932.945 eurokoa izan da, gutxi gorabehera urterako gauzatu behar den aurreikusitako inbertsioaren %78a. Kopuru honek aurreikuspen egokitze maila altua adierazten du. Inbertsio-ahalegina udalen aldetik aurreneko bi urteetan zehar (2004 eta 2005) programaren guztizko inbertsioaren %21a izan zen; 2006 ekitaldian gauzatutakoarekin Izartu II programapean ematen den diru-laguntzatik inbertsio guztiaren ia erdia burutu da. Era berean azpimarratu behar, hurrengo grafikoan ikusten den bezala, gastu aurreikuspena 2006 ekitaldirako aurreko urtekoa ia bikoizten zuela; datu honek Izartu programaren bigarren deialdiko onuradun udalerriek beraien programen gauzatzearen lehen erdian zuten erritmo ona azpimarratzen du.


13. Grafikoa: 2006. urtean egindako gastua urte horretarako programazioaren arabera.



Zentzu honetan, Izartu II programek hiru lehen urte hauetan jarraitu duten jarduera Izartu I programekin konparatzen baditugu, bigarren deialdiko onuradunen programazioari maila handiagoko egokitzapena erreparatu dezakegu. Horrela, Izartu I programen urteko gastuaren balioztapenaren betetze maila gauzatzearen lehenengo hiru urteetan %57koa da eta Izarte II programetan berriz, %78koa (lehenago seinalatu den bezala).

Beste alde batetik, **inbertsioen erritmoa ez da berdina izan esku-hartze eremu guztietan**. 2. ARDATZAREN zama ikusita programaren multzoarekiko, hau da programazioaren egokitze maila ezartzen duena, nahiz eta diferentzia handiekin neurrien artean. Horrela, 2.1. *Garraio-azpiegiturak* eta 2.7. *Aisia- eta kultura-azpiegitura* neurriak beraien gastuaren programazioa gainditzen dute; 2.3. *Energia-azpiegitura*, 2.4. *Ingurumen-arloko azpiegitura* eta 2.6. *Gizarte- eta osasun-azpiegitura* neurriak, berriz, urterako aurreikusitako gastuaren erdian gelditzen dira. 1. ARDATZA eta 3. ARDATZA, jarduera gutxiagoekin, gauzatze maila txikiagoa aurkezten dute, batezbesteko gastuaren %55 eta %18a, hurrenez hurren, programazioaren aurrean. Zenbait kasuetan, 3.1. *Gizarte-integrazioa* neurrian bezala, gauzatze eskas hau inbertsio guztia aurreko urteetan gauzatzearen arrazoia da.


14. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako Izartu programek 2006. urterako egindako inbertsioa.



Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, hiru lurralde historikoetan aipatutako urterako programatutako gastuaren egokitzea altua dela erreparatu daiteke. Arabako, gauzatutako inbertsioa ia urteko programazioa baino lau aldiz handiagoa da, Vitoria-Gasteiz hiriburuak gauzatutako gastuaren ondorioz. Bizkaian, ekitaldiaren aurreikuspenen lorpen-maila %79a da eta Gipuzkoan %62a.

Izartu bigarren programa honen hiru eskualde onuradun, programazioa baino inbertsio ahalegin handiago aurkezten dute: *Arabako Lautada, Arratia-Nerbioi eta Enkarterri. Nerbioi Garaia, Durangaldea, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia, Deba Garaia, Bidasoa Behera eta Urola Kosta* eskualdeak beraien aurreikusitako gastuen osotasunera hurbiltzen ari dira 2006 ekitaldirako. Aldiz, *Gernika-Bermeo, Eskuinaldea, Txoriherri, Deba Barrena eta ekialdeko ingurabidea* eskualdeak ez dute beraien aurreikusitako gastuen herenera heltzen.

15. Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako Izartu progamek 2006. urterako egindako inbertsioa.




4.1.2. PROGRAMAZIOAREN ARABERAKO DESBIDERATZEAK

Aurreko datuek diferentzia garrantzitsuak adierazten dute 2004-2008 aldirako Izartu programen gauzatze erritmoan, nahiz eta aurreko ekitaldietan baino gutxiago. Programa bakoitzeko azterketa zehatzak desbideratzeak azpimarratzen ditu, bai superabitagatik bai defizitagatik, 2006. urteko inbertsioa gauzatzean.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da aurreko urtekin konparatuz aldaketak egiteko eskaera gehiago egon direla jatorrizko programei dagokionez. Horrela, onuradunen %28a (19 udalerri) jardueretan aurreikusitako zenbateko osoan aldaketak eskatu dituzte (jarduera berdinen artean aurrekontuko aldaketak), edota jardueren sartzea edo kentzea indarrean dagoen programari dagokionez. 2006. urtean zehar beraien programetan aldaketak egiteko eskaera egin duten udalerriek honako hauek dira: Agurain, Antzuola, Areatza, Astigarraga, Basauri, Bergara, Bermeo, Ermua, Eskoriatza, Etxebarri, Gernika-Lumo, Hernani, Karrantza, Lasarte-Oria, Lekeitio, Markina-Xemein, Mutriku, Segura eta Zegama; azken honek luzapen bat eskatu du aldi berean.

Bigarrenik, diruz lagundutako 273 jardueretatik (laguntza teknikoko jarduerak alde batera utzita), %40tan ez da desbideratzerik egon, aipatutako ekitaldian inbertsiorik egiteko asmorik ez zutelako edo 2006. urterako gastuaren programazioa osorik bete dutelako.


16. Grafikoa: Jarduerak. 2004-2008 aldirako IZARTU programen programazioaren arabeko desbideratzeak. 2006. urtea.



Jardueren %36ak desbideratzeak izan dituzte; horiei dagokienez, superabita izan da programatutako gastuaren arabera, batere gasturik aurreikusirik ez zegoelako eta, hala ere, inbertsioa betearazi dutelako, edota egin duten gastuak programatuta zegoena gaingitu dutelako. **Gainerako desbideratzeak betearazi dena aurrez ikusitakoa baino gutxiago izan delako gertatu dira**, eta, programazioa gorabehera, batere gasturik egin ez dutelako ere bai. Garrantzitsua da azpimarratzea gauzatze gutxiago duten desbideratze hauen %10a baino gehiago aurreko urteetan 2006 ekitaldirako aurreikusita zeuden helburuak aurreratu eta burutu zirenen ondorioa dira.

Hala, udalerriei dagokienez, aurreikuspenen arabera izan den soberakin hori Izartu II programaren onura jaso duten udalerrien heren batean baino gehiagotan izan da (%40); bestalde, %24ak programatutakoa bete du edo betetzeko oso gutxi falta zaie. Horregatik, bakarrik programen onuradunen heren bat baino gehiago 2006 ekitaldirako inbertsio aurreikuspenak baino gutxiagoko gastua adierazten dute.

17. Grafikoa: Udalerriak. 2004-2008 aldirako Izartu programen programazioaren araberrako desbideratzeak. 2006. urtea.



Programatutako gastu gehien egin duten udalerriak honako hauek dira: Abanto eta Zierbena, Andoain, Areatza, Arrasate-Mondragón, Arrigorriaga, Balmaseda, Elorrio, Ermua, Güeñes, Igorre, Hondarribia, Legazpi, Mungia, Orio, Sopuerta, Ugao-Miraballes, Vitoria-Gasteiz, Zalla eta Zierbena. Halaber, udalerri aurreratuenak dira, bereziki ez bakarrik urte osorako prebisioak gaingitu dituztenak, baizik eta denboraldi osorako diruz laguntzeko moduko inbertsio guztia ere gaingitu dutenak. **Horrela, 2006. urtean Hondarribiari dagokion lehen 2004-2008 Izartu programa amaitzen da, eta gainera Andoain, Arrigorriaga, Elorrio, Güeñes, Igorre eta Vitoria-Gasteiz udalerrietan diruz laguntzeko moduko inbertsioa gaingitzen da denboraldi osorako**, hau da, beraien programentzako aurreikusitako inbertsioa gauzatzen dute. Bestalde, erdi denboraldi honetan inbertsio gauzatzearen bi heren beteko luketen udalerriek honako hauek dira: Abanto eta Ciérvana, Balmaseda, Bilbo, Ibarra, Lekeitio, Mungia, Orio, Sopuerta, Zegama eta Zierbena.

Gauzatutako inbertsio guztia gainditzen duten programa onuradunen tokiko arduradunen aburuz, 2004-2008 denboraldiko Izartu programak finantziatutako inbertsioa gainditzen duten jardueren kostuaren arrazoi nagusia da. Kasu batzuetan, jarduera edo programaren kostu nagusi honek hasieratik baliostatua zegoen, delako udalerria Izartu programa barruan aurreikusitako ahalegina baino handiagoa hartzen zuelako, jardueren garrantzia eta lehentasuna dela eta. Hau da Andoain eta Vitoria-Gasteiz-eko udaletan gertatzen dena. Beste kasuetan, Gueñes, Hondarribia eta Igorreko udalerrietan adibidez, jardueren barruan aurreikusitako gauzatzeen aldaketa zehatzak, lanen kalitatea edo azken produktuen prezioa areagotzeko beharra jardueren inbertsio guztiarekiko hasieran aurreikusitak ez zeuden igoeretara eraman du. Arrigorriaga, Izartu programarentzako aurreikusita zegoen gauzatutako inbertsioa baino handiagoa aurkeztuz gain, honen burutzea amaiturik edukita, gainerako denboraldirako programatua dagoen laguntzaren ordainketa bakarrik ordaindu gabe falta delarik.

Jardueren prezio igotzea proiektuetan sartutako hobekuntzei esker, hasierako aurreikuspenei dagokionez, Balmaseda, Ibarra, Orio eta Sopuerta-ko udalerrietan eragina izan du, bere 2004-2008 Izartu programei dagokien aurreikusitako inbertsioaren bi heren baino gehiago gauzatuekin. Lekeitio ere aurrerapauso garrantzitsu bat lortu du, gauzatutako inbertsioa bere programapean diruz laguntzeko moduko inbertsioa baino handiagoa bait da. Programaren bi heren gauzatu duten beste udalerriei buruz, zenbait hobekuntzak eta jarduerak egiteko beharra eta urgentzia dira arrazoi nagusiak, batez ere hirigintza-hobekuntzak (Abanto, Ciérvana, Ibarra eta Zierbenako udalak) eta/edo udal plangintzan izan diren esku-hartze aurreikuspenen betetzea (Bilbo, Mungia eta Zegamako udalak).

Aldiz, programazioarekiko gastu txikiagoa eta diruz laguntzeko moduko inbertsioaren gauzatzearekiko atzerapen handia erakusten duten programa horietan gelditzen bagara (gauzatutako inbertsio guztiaren %10a baino gutxiagokoa), Basauri, Bermeo, Durango, Erandio, Gernika-Lumo, Irun, Leioa, Lemoiz, Lezo, Sestao, Tolosa, Valle de Trápaga-Trapagaran eta Zaldibiako udalerriek aurkitu ditzakegu. Gauzatze baxuagatik ere nabarmentzen dira hurrengo udalerriak, nahiz eta aurrekoak baino egoera hobeagoarekin (gauzatutako inbertsio guztiaren heren bat baino gutxiagokoa): Elgoibar, Errenteria, Eskoriatza, Etxebarri, Galdakao, Iurreta, Lasarte-Oria, Mutriku, Oiartzun, Segura, Sorluze-Placencia de las Armas, Trucios eta Zumaia.

Zenbait kasuetan, aurreikusitako inbertsio gauzatzean izandako itxurazko atzerapen honek ez du tokiko arduradunen balorazio negatiboa edo kezka inplikatzeko beraien programen gauzatze erritmoari buruz. Horrela, betetako helburuak edo aurreikusitako gauzatzeak lortzeko dagokionez desbideratzea ez dagoela adieztu dute, udal-plangintzari egokitzen baitira. Hau da Bermeo, Gernika-Lumo, Leioa, Lemoiz, Sestao eta Valle de Trápaga-Trapagaran udalen kasua. Hauek dira udalerri hauetan azpimarratutako arrazoi nagusiak: beste erakundeek burutzen dituzten lanak estaltzeko eta sinergietaz baliatzeko beharrak, beraien programen barruan dauden proiektu nagusietako hirigintza-kudeaketaren konplexutasuna eta hobekuntzen hartzaileen aldetik adostasun eta parte-hartze nabarmenagoa lortzeko beharra.


Bestalde, Basauri, Durango, Erandio, Irun, Lezo, Tolosa eta Zaldibiako udalerrientzako atzerapen horren ondorio nagusiak hurrengoak dira: azpikontrataturako enpresek obrak hasteko izan duten atzerapena, tartean dauden beste instituzio edo agente batzuen baimenen edo akordioen beharra (jabeak bezala), izapideten atzerapena edo jardueren zailtasuna dela-eta aurretiazko azterketak edo zenbatespenak benetako egoerara egokitzeko beharra.

4.2. PROGRAMAREN AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDEAREN IKUSPEGITIK

4.2.1. PROGRAMAREN AURRERAPENA INBERTSIOARI DAGOKIONEZ

2004-2006 aldirako IZARTU II programek lehenengo bi urteetan egindako gastua programak aldi osorako aurreikusitako guztizko inbertsioaren %46,5 izan da. Lehendabiziko Izartu programarekin konparatuta, aurrerapena berdintsua izan da, programaren lehen deialdiko onuradun izan zirenek guztizko inbertsioaren %46,3 gauzatu baitzuten beren ibilbidearen lehen urtean.

18. Grafikoa: Izartu I eta Izartu II programek lehenengo urtean izandako aurrerapenen arteko konparazioa, guztizko inbertsioaren arabera




Jarduerak abian jartzearekin batera hasten diren eta laguntza teknikoarekin zerikusia duten jarduerak alde batera utzita, eta 2004-2006 aldian egindako jarduerari begira, jarduera eremuek orokorrean aurrerapen berdintsua izan dute. Honako hauek dira neurririk aurreratuenak, egin beharreko inbertsioaren guztizkoa kontuan hartuta:

- *2.1 Garraio-azpiegiturak:* 2004-2006 aldian gastua 13.134.041 eurokoa izan da, hau da, guztizko inbertsio osoa.
- *3.1 Gizarte-integrazioa:* Neurri honen jardueren bitarteko aldian egindako gastua 779.141 eurokoa izan da, hau da, guztizko inbertsioaren %100, nahiz eta jarduera bakarrari dagokion.
- *2.7 Aisialdirako eta kulturarako azpiegitura:* 2004-2006 aldian neurri hauen gastua guztizko inbertsioaren %66a izan da, hau da, 8.889.729 €.

- 1.1. *Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea*: 2004-2006 aldian neurri hauen gastua guztizko inbertsioaren %63a izan da, hau da, 1.108.538 €.

Aitzitik, 1.2 *Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea*, 1.3 *Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea* eta 3.2 *Aukera-berdintasuna* neurriak ez dira iritsi aurreikusitako guztizko inbertsioaren %1era. 1.4 *Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea babestea*, 2.4 *Ingurumen-arloko azpiegitura* eta 2.6 *Gizarte eta osasun arloko azpiegitura* neurriak ere inbertsioaren herenaren azpitik daude.


19. Grafikoa: Esku hartzeko esparruak. 2004-2008 aldirako Izartu Programek egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera



Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, lurraldeetako bakoitzerako guztizko inbertsioaren arabera izandako aurrerapena konparatzen badugu, **Araba da aurreratuen doan lurraldea**, bi udalerri baino ez baditu ere. Batek, Vitoria-Gasteiz udalerriak, aldi osorako aurreikusitako guztizko inbertsioa baino gastua handiagoa izan du. **Bizkaiak** 2004-2006 denboraldian 43.578.493 €. euroko gastua egin du, guztizko inbertsioaren %50. Azkenik, **Gipuzkoak** 31.121.524 euroko guztizko inbertsioa du, guztizko inbertsioaren %39.

Eskualdeka begiratuta, Arabako Lautada, Arratia-Nerbioi, Bilbao, Markina-Ondarroak, Enkarterriak eta mendebaldeko ingurabidea eskualdeek guztira aurreikusitako inbertsioaren %60 gainditu dute, eta lehendabiziko lau eskualdeek %70 gainditu dute. Aurrerapen gutxien dutenak Eskuinaldea, Gernika-Bermeo, ekialdeko ingurabidea, Debabarrena, eta Txoriherri dira.

20. Grafikoa: Eskualdeak. 2004-2008 aldirako IZARTU programek egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera



4.2.2. TOKIKO INBERTSIO-AHALEGINA ETA JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

2004-2008 aldi honetan Izartu programaren onuradun diren udalek jasotako diru-laguntzez gain haiek eurek finantzatzaren duten zatiari begira, **batez beste %37koa tokiko inbertsio-ahaleginari dagokio.**

Tokiko ahalegin hauei dagokienez, gogoratzekoa da onuradun guztiek ez dituztela ahalegin berdinak egin, hori baterako finantzazioaren tasaren arabera baita. Izan ere, narriadura sozio-ekonomikoa definitzeko irizpideetan oinarrituta, diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren %30, %50 eta %75eko laguntza ezartzen da. 47 izan dira inbertsioaren %75eko laguntza jaso duten programak. 17 udalerriek %50eko laguntza jaso dute eta 4k, berriz, %30ekoa. Bestalde, Izartu programaren bigarren deialdi honek BEZa hartzen du aintzat. Hori dela eta, Izartu I programaren onuradun izan zirenen tokiko inbertsio-ahaleginarekin konparatuz gero (hori %30ekoa izan zen batez beste), ahalegina antzekoa izan da, lehenengo deialdikoek zerga hori hartu behar izan zutelako beren gain.

Beraz, Izartu II programek 2004-2006 aldian gauzatutako 80,4 milioi € horietatik 29,7 milioi euro inguru tokiko inbertsio-ahaleginari zor zaizkio, Izartuk emandako diru-laguntza ere kontuan hartu behar delarik.

Bestalde, programa oraindik diru-laguntza gehiagorekin edo beste motako laguntza batzuekin bateragarria da, gainerako administrazio eta erakundeetatik laguntza ezberdin gehiago jaso daitezke. Kasu batzuetan udalak ematen duen diruarekin batera finantzatu behar den zatiari aurre egiteko laguntza ezberdin hauek oso lagungarri gertatzen dira. Haatik, Eusko Jaurlaritzako beste sailetatik edo berariazko beste programa batzuetatik jasotako diru-laguntzekin ez dira bateragarriak.

Hala, programak gauzatzen emandako bi urte hauetan bestelako laguntza edo diru-laguntzen bidez, guztira 4.915.109 euro jaso dira Izartu programaren baitan barne hartutako jardueri laguntzeko. Kopuru hori eta aurreko bi aldietan onuradun diren udalerriek jaso duten kopuruaren batuketak orain arte egindako gastu osoaren %11 ematen duen arren, tokiko inbertsioaren arabera egin den gastu ekonomikoaren %31 ematen du.

Zenbateko hau handia da, aurreko urteetako (2004 eta 2005) guztizko zenbatekoaren parekoa baita. Dena den, Izartu II programaren baitan finantzatutako 273 jardueren artean 21k bakarrik jaso dituzte laguntza horiek, jardueren %7ak hain zuzen. Horrezaz gain, jarduera horien guztizko gastuari begira, beste laguntza horiei dagokien inbertsioaren ehunekoa %19koa baino ez da izan, batez beste. 2006. urtean beste laguntza edo programa batzuk izan dituzten udalerriak Bizkaikoak (9 udalerri) eta Gipuzkoakoak (5 udalerri) dira.


Proiektuen tipologiari erreparatzen badiogu, *2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak, 2.7 Aisialdirako eta kulturarako azpiegitura, 2.4 Ingurumen-arloko azpiegitura eta 2.2 Garraio azpiegiturak* deituriko neurriak dira diru-laguntzak jaso dituzten jarduerak.

Lurraldeen arabera begiratuta, diru-laguntza handienak foru-aldundietatik iritsi dira, eta ondoren, Ingurumen, Kultura, Hirigintza eta Nekazaritza departamentuetatik. 2006an zehar Izartu II programaren jarduerari laguntza eman dieten beste erakunde batzuk hauek dira: Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoa, EB (Eskualde Garapeneko Europako Funtza), INSERSO-ONCE fundazioa eta Sustapen Ministerioa.

4.2.3. AURRERAPENA BALIOESTEA IKUSPEGI INTEGRALETIK UDALEN ARABERA

Izartu programa 2004-2008 aldian bere osotasunean hartuta, tokiko arduradunek jardueren bidea ona izan dela diote, aurreko paragrafoetan azaldutako emaitzek erakusten dutenez. Deialdi honetan onuradun izan diren Izarturen 69 programetatik, 62 programetako arduradunen ustez, ekimena positiboa izan da, batez ere biztanle onuradunen artean sortu dituen itxaropenak bete dituelako, 4 programetako arduradunek ez dute honi buruzko iritzirik eman eta 2k balioespen txarra egin dute.

21. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programak daraman bidearen inguruko gogobetetzearen balorazioa



Honela, programa askoren ibilerari buruz izan den ikuspen on hori arrazoitzeko, jarduerak betetzeko izan diren aurrerapenak aipatzen dira, horietako askok aurreikuspenak gainditu baitituzte. Alabaina, itxura denez, **tokiko arduradunek programen inguruan erakutsi duten baikortasunaren arrazoi nagusia da jarduera hauen inguruan herritarren asetasun-maila altua hautematen hasi direla, bertan bizi direnen autoestimua eta bizitza-maila hobetu delako: hiri-inguruetako auzoak hiriaren egituraren barne sartzea, hirirako sarrerak erraztea, bizitza soziala izan ahal izateko guneak leheneratzea, hiritar behartsuenen bizi kalitatea hobetzea, herrien irudia bultzatzea, azpiegitura modernoak eratzea, hornikuntza sozio-kultural berriak lortzea, hiriaren haustura konpontzea, ekologian, paisaietan eta hirigintzan egindako hobekuntzak, kohesio soziala, bide-segurtasuna eta oinezkoentzako bideak, suspertze sozio-ekonomikoa...** programen bideari buruz hitz egiten dutenean arduradunek aipatzen dituzten lorpen garrantzitsuenak dira.

Arduradunek programaren emaitzari buruz egiten duten balorapen positiboa azaltzen dutenean zeharkako beste lorpen batzuk ere aipatzen dituzte: departamentuen arteko edota maila ezberdinetako erakundeen arteko lan ona, programa tokitik bertatik hasteko filosofia, etorkizuna eraikitzeko proiektu estrategikoak osatzeko beharra, programa osoa jarduera ezberdinetara bideratu dela... Bestalde, Izartuk onuradun izan diren udalerriek (udalerri txikienei batez ere) bultzada ekonomikoa eragin dien arren, udalerriek inbertsioa egiteko topatzen duten zailtasuna programa hauen arduradunek azpimarratzen duten osagai okerreina da.

2004-2008 aldiko Izartu programen atal orokor honetan 2006. ekitaldian bukatu den Hondarribiako programa nabarmendu behar dugu. Programak Amute auzoan narriatutako guneak berreskuratzeko asmoa zuen, auzoa hiri barnean integratu nahi zuen, bertako ingurunea garatu nahi zuen, eta ohizko uholdeak edo azpiegituretako gabeziak bezalako arazo nagusiak konpontzeko ekintzak bideratu nahi zituen. Izartu programaren arduradunek diotenez, programak jarduera eremuetan eragin positiboa du, honelako jarduerak edozein udalerriren egoera asko hobetzen baitute: "Argi eta garbi dago honelako programak edo laguntzak udalerri baten suspertze sozio-ekonomikoan funtsezkoak direla".

Bestalde, Izartu II programak izan dituzten emaitzek jendearen artean lortu duten ajetasuna erakusten dute. **Jardueren %79 2004-2006 aldian hasi da.**

Hiru urteko jardueraren ondorioz, **Izartu II programaren barne sartzen ziren 273 jardueretatik, 69 bukatu egin dira, guztizko jardueren %25.**

Hondarribiaz gain, bigarren deialdi honetako onuradunen erdiak jardueraren bat bukatu du: Amorebieta, Andoain, Antzuola, Areatza, Arrigorriaga, Artzentales, Astigarraga, Azpeitia, Basauri, Bergara, Bilbo, Derio, Donostia-San Sebastián, Elorrio, Eskoriatza, Güeñes, Hernani, Hondarribia, Igorre, Iurreta, Lasarte-Oria, Markina-Xemein, Mungia, Orrio, Otxandio, Sestao, Sopuerta, Turtzioz, Ugao-Miraballes, Villabona-Zizurkil, Zeanuri, Zegama eta Zierbena.

Amaitutako jarduerak 2. ARDATZAREN (Tokiko oinarrizko azpiegiturak) baitakoak dira, zehazki ondorengo neurrien ingurukoak 2.5 Antolatze eta birgaitzeko azpiegiturak. Aurrerapena batik bat 2.1 Garraio azpiegiturak eta 2.3 Ingurumen arloko azpiegiturak neurrietan nabaritzen da.

6. taula: 2004-2008 aldirako Izartu programetan amaitutako jardueren analisisa, esku hartzeko esparruen arabera. 2006. urtea


ARDATZAK ETA NEURRIAK	JARDUEREN GUZTIZKOA	BURUTUTAKO JARDUERAK	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA	14	1	%7
1.1. Jarduerari laguntzeko egiturak sortzea eta garatzea:	7	1	%13
1.2. Ekoizteko azpiegitura sortzea eta garatzea	2	0	%0
1.3. Enpresaburuei, ETEei eta artisau-enpresei laguntzea	1	0	%0
1.4. Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea	4	0	%0
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	256	57	%22
2.1. Garraio-azpiegiturak	21	9	%43
2.2. Telekomunikazio eta informazio-gizarterako azpiegitura	4	0	%0
2.3. Energiarako azpiegitura	6	3	%50
2.4. Ingurumen-arloko azpiegitura	48	12	%25
2.5. Antolatze eta birgaitze azpiegiturak	159	40	%25
2.6. Gizarte- eta osasun-arloko azpiegitura	5	0	%0
2.7. Aisialdiko eta kulturako azpiegitura	11	2	%18
2.8. Hezkuntzako eta prestakuntzako azpiegitura	2	1	%50
3. ARDATZA. GIZARTE-INTEGRAZIOA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	3	1	%33
3.1. Gizarte-integrazioa	1	1	%100
3.2. Aukera-berdintasuna	1	0	%0
3.3. Gizalegezko prestakuntza eta hezkuntza	-	-	-
3.4. Hiritarren segurtasuna	-	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-	-
3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	-	-	-
3.7. Tokiko beste zerbitzu oinarritzko batzuk	1	0	%0

4.2.4. PROGRAMAK AURRERA EGITEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Izartu II programaren onuradunek aurreko aldian baino jarduera gehiago egin dituzte laguntza teknikoaren inguruan eta neurri horiek Izartu I programan baino garrantzi handiagoa dute guztizko inbertsioaren baitan garrantzi handiagoa dute. Izan ere, 57 udalerri (onuradunen %80 baino gehiagok) kontratatatu dituzte kanpoko laguntza jasotzeko zereginak, 2,4 milioi euro inguruko balioa izan dutenak (2004-2008 aldirako Izartu programak bere osotasunean izango duen guztizko inbertsioaren %1,4).

Denboraldi honetan Izartu II programak laguntza neurrientzat aurreikusi zuen guztizko gastuaren %40 bete da. 2006. ekitaldian zehar izandako gastua aurreko urteetako gastua baino handiagoa da. Datu hau arrazoizkoa da, onuradun diren udalerri gehienek, 62 guztira, bere programak balioztatzeko txostena idatziko zuen kanpoko talde bat kontratatatzeko beharra baitzuten.


22. Grafikoa: 2004-2005 aldiko Izartu II programaren laguntza teknikorako gastua



Bestalde, aditzera eman beharra dago, Izarturen lehen deialdiko programekin gertatu den bezala, udal batzuek kanpoko laguntza teknikoak dituztela eta horien kostua ez diotela programari egozten. Alabaina, bigarren deialdian obra-zuzendaritza ala proiektuen jarraipena bezalako neurrietarako behar izan den dirua laguntza teknikoari dagozkio, eta ekintza horiek hirigintzako jardueraren inbertsioari egotzi behar zaizkio, ez ordea, Izartu programaren kudeaketari berari.

Hala, 2006. urtean laguntza teknikoak gehien bultzatu dituen zereginak jarduerak tokian kudeatzeko, koordinatzeko eta kontrolatzeko lanei buruzkoak izan dira, programaren helburuak betetzeko eta ezarritako arauak jarraitzeko asmoz, eta programen jarraipenarekin edota gastuaren kontrolarekin zerikusia duten dokumentuak egiteko. Era berean, atal honen hasieran azaltzen genuen bezala, kontutan hartu beharrekoak dira programa balioztatzeko txostena egiteko laguntza teknikoa jasotzeko neurriak.


23. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan 2006an egindako laguntza teknikoaren baitako jardueren nausirik



Publizitateari buruzko eta informazioa zabaltzeko ekintzei dagokienez, bigarren urte honetan erabiltzaileen %87ak bere programak zabaltzeko neurriak hartu dituela esaten du. Gehien baliatu dituzten bideak honako hauek izan dira: esku hartutako alderdietan %80ak publizitate-txartelak, -panelak eta -oholak jarri ditu; izan ere, Izartu programari dagokion araudiaren arabera, nahitaez jarri beharrekoak baitira.

Bigarrenik udalaren komunikabideak ditugu, hala nola, tokiko web-orria, udal-aldizkariak, herritarren postontzietan banatutako informazio-triptikoak.... (%42); eta, horren ondoren, publizitate kanpainak, eskualdeko egunkarietan argitaratutako artikulak eta beste ikus-entzunezko batzuk (tokiko eta autonomia-erkidegoko irratia eta telebista) (%30). Orobat, aipatzeko modukoak dira tartean dauden auzotarrei eta onuradunei horren berri emateko egin diren hitzaldiak eta bilerak, programen %13tan egin baitira.

24. Grafikoa: 2004-2008 aldirako Izartu programaren baitan 2005ean komunikatzeko, informazioa emateko eta hedatzeko erabilitako tresnak



5. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN INGURUKO MEMORIA

Kapitulu honetan programek aldatu nahi duten errealitateari egindako ekarpenak aztertuko ditugu. Hau da, hurrengo ataletan barrena **Izartu ekimenak bi deialdietan (2001-2005 eta 2004-2008) izan duen azken xedeari eskainiko diogu arreta, hain zuzen ere, hirialdeak lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen aldetik gehiago egituratzeko eta kohesionatzeko helburuari.**

Izartu programak Euskal Autonomia Erkidegoan kaltetuen dauden hirialdeei gizarte- eta ekonomia-mailan biziberritzen laguntza ematea du xede, **erabateko izaera duten jardueren bidez** (hirialdeak biziberritze programaren bidez). Izan ere, jarduerak hauek **hirialde hauetan dauden arazo guztiei batera heltzen diete** (gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta abarren inguruko arazoei), hirialde hauetan **lurraldearen, ekonomiaren eta gizartearen mailako kohesioa lortzeko azken xedearekin**. Hortaz, Izartu programari dagozkion jarduerak deialdi bakoitzaren araudian ezarritako kohesioaren inguruko helburu batean edo batzuetan bil daitezke oro har, ekintzaren tipologiari eta lortu nahi den xedeari edo eraginari jarraiki.

Helburu batzuen izena aldatu egiten da deialdi batetik bestera, baina kohesioa bilatzen duen helburu bakoitzak barne hartzen dituen jarduerak sakonki aztertuz gero, ondo bateratu ahal izango ditugu; aurreko urteetako (2004ko eta 2005eko) jarraipen-txostenak ere horretarako aukera eman zigun, lehenbiziko aldiz jaso baitzituen bi deialdien emaitzak, Izartu I eta Izartu II programek izandako aurrerapenen, emaitzen eta eraginen arteko konparazio-azterketa, kohesioko helburuei jarriki.

Ildo horretan, gogoan izan behar da jarduerak honela multzokatu zirela:

➤ **Lurralde-integrazioa:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako *Lurralde-integrazioa, hurbilerraztasuna eta hiri-kohesioa hobetzea* deituriko helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programako *Lurralde-integrazioarekin zerikusia duten arazoak konpontzea* deituriko helburua.

Jardueren sailkapena: Batez ere hiri-inguruetako auzo eta eremu jakin batzuen hurbilerraztasuna eta hirigintza-egoera hobetzera bideratutako jarduerak hartzen ditu bere baitan (arrapalak, eskailerak, trafikoa antolatzea, udal-zerbitzuak eta hornidura publikoak hobetzea...). Halaber, hirigunera sartzeko bideak hobetzera bideratzea, hiri-sareari jarraitasuna ematea eta egitura kohesionatuagoa osatzea ere (bide berriak, oinezkoentzako pasabideak, arrapalak, espaloiak zabaltzea...) kontutan hartzen dira.

➤ **Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia barne hartzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako eta 2004-2008 aldirako Izartu programen *Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologia berriak barne hartzea* izeneko helburua.

Jardueren sailkapena: Oro har biztanle guztiek eta berariazko talde batzuek (enpresa, udal-erakunde, emakumezko eta gazteek) IKTbak gehiago erabiltzera bideratutako proiektuak, horretara zuzendutako eta egokitutako espazioak sortuz, prestakuntza-ikastaroak antolatuz, udal-zerbitzuak Internet bidez eskainiz... 2004-2008 aldirako Izartu programetan bi jarduera-mota baino ez dira barne hartu: zuntz optikoa sartzeta eta udaletako administrazio-zerbitzuak digitalizatzea.

➤ **Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren baitako *Ingurumena eta narriatutako inguruneak leheneratzea* helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programaren baitako *Narriatutako edo/eta utzitako eremuak leheneratzea eta hobetzea* helburua.

Jardueren sailkapena: Narriatutako inguruneak edo eremuak leheneratzeko eta hirialdeak ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko jarduerak, eta horretaz gain inguruneaz gozatzera, kontzientziazio ekologikora eta ingurumena zaintzera eta errespetatzera bideratutako eremuez eta ekipamenduez hornitzeko jarduerak.

➤ **Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: *Ekonomia-jarduera sustatzea: enpresa berriak eta enplegua* eta *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* izeneko helburuak eta 2004-2008 aldirako Izartu programaren barruan *Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea* izeneko helburua.

Jardueren sailkapena: Tokiko ekonomia-jarduerari zuzenean laguntzeko jarduerak, negozio-aukera berriak sortzera bideratutakoak (mintegiak, hirugarren sektoreari, kulturari edo gizarteari buruzko ekintzak garatzeko eraikinak birgaitzea...) nahiz dauden enpresei laguntzera bideratutakoak (eraikinak birgaitzea, zerbitzuak, enpresaburuentzako, ETEetarako eta saltokientzako ikastaroak, gizartea eta hirugarren sektorea garatzeko asmoz hiriguneak, plazak eta erdialdeko kaleak oinezkoentzat bihurtzea ...). Jarduera hauek lotura estua dute jarduerak garatzen diren zonetan turismoak izan dezakeen garapenarekin. Esparru honetako berariazko jarduerak ere hartu dira barne, hala nola, pasealekuak, mendietan ibilaldiak egiteko ibilbideak eta abar sortzea.

➤ **Hiriaren irudia eta egoera hobetzea:**

Honekin zerikusia duten helburuak: *Hiriaren irudia, kalitatea eta hiri-ingurunea hobetzea.* 2001-2004 aldirako Izartu programen baitan *Urbanizatzeko obrak eta birgaitzeko proiektuak*, eta 2004-2008 aldirako Izartu programen baitan *Hiri-jardueren ingurumen-eragina murriztea* helburua.

Jardueren sailkapena: Hirigintza-hobekuntzak egitea eta udal-zerbitzu eta -sareak hobetzea, hiri-azpiegiturak hornitzea eta instalatzea, urbanizatzeko planak, espazio publikoak (parkeak, plazak, lorategiak...) gaitzea, udalerrietako erdiguneak eta inguru bereziak oinezkoentzat bihurtzea eta hobetzea, hiri-irudia hobetzea herriaren gune historikoak, eraikinak, etxebizitzak eta abar birgaitzeko proiektuen bidez.

➤ **Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak:**

Honekin zerikusia duten helburuak: 2001-2005 aldirako Izartu programaren barruan *Udalerriak gizartearen, kulturaren eta jolasaren esparruko zerbitzu eta ekipamenduz hornitzea* deituriko helburua eta 2004-2008 aldirako Izartu programaren *Gizarte- eta lan-bazterketa jasateko arriskuan diren taldeen aldeko diskriminazio positiboa* deituriko helburua.

Jardueren sailkapena: Hirugarren sektoreko zerbitzu eta ekipamenduak sortzea: gizarte- eta kultura-zentroak, liburutegiak, hirugarren adinekoentzako, emakumezkoentzako, gazteentzako edo gizarte-bazterketa jasaten duten taldeentzako espazioak, eraikin eta areto balioanitzak eta berariazko gizarte-zerbitzu eta -programak (berdintasun-planak, hurbilerraztasuna areagotzeko planak..).

Gogoan izan jardueren sailkapena ez dela finkoa, Izartu programaren jarduerak orokorrak direnez, proiektuetako askok helburu bat edo gehiago izan dezakeelako. Haatik, banaketa horrek jarduera bakoitzak izandako aurrerapena eta emaitzak edo eraginak hobe baloratzeko aukera eskainiko digu.

Izarturen bi programetan diruz lagundutako jardueren banaketari dagokionez, 2001-2005 aldirako nahiz 2004-2008 aldirako Izartu programen kasuan, honetara bil ditzakegu jarduera-kopuru eta inbertsio handiena izan duten helburuak: *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea, Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea eta lurralde-integrazioa*. Aitzitik, honakoak dira oraindik ere jarduera-kopuru eta inbertsio txikiena duten helburuak: *IKTBak barne hartzea, Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea eta Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak*.

Ondoren aurkeztuko ditugun ataletan prestatutako esku-hartzeetan eta lortutako emaitzetan eta eraginetan izandako aurrerapenen inguruko datuak eskainiko ditugu.

5.1. HELBURUETAN IZANDAKO AURRERAPENA: INBERTSIOA ETA EGINDAKOA


Atal honetan **kohesioaren inguruko helburu orokor bakoitzean izandako aurrerapena** aztertuko dugu, **egindako inbertsioaren arabera eta jardueretako bakoitzean egin denari jarraiki** (jarduera bakoitzak bere baitan hartzen dituen ekintzak aintzat izanik). Berriz ere azpimarratu behar dugu Izartu I programa bere seigarren urtean dela, 2006. urtean 31 programa besterik ez dituelarik, 2004-2008 aldirako Izartu programak, berriz, orain tarteko denboraldian daude, ebazpena 2004ko ekainekoa denez, programak hiru urteko bidea besterik ez du egin.

Inbertsioari begira, lehen deialdian ikus dezakegu *Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak* deritzan helburua dela aurreratuen doana, horren ondoren *Lurralde-integrazioa* eta *Enpresaburuei eta ETEei laguntzea*, *Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea* programak doazelarik.

Bestetik, atzeratuen dagoena *Informazioko eta komunikazioko teknologiak sartzea* izenekoa da; aitzitik, Izartu II programan horixe da aurreratuen dagoena. Datu hori ikusita, nabarmena da betearazi den lana denboraldi osorako aurrez ikusita zegoena baino handiagoa dela; hala ere, hor ñabardura bat egin beharra dago: horrekin aditzera eman nahi da jarduera jakin batzuen kostuan eta inbertsioa alderatuta, kostuak izan duen soberakina jasotako diru laguntza baino handiagoa izan dela, baina horrek ez du adierazten helburu horretan sartuta dauden jarduera guztiak burututa daudenik. Bestalde, azpimarratu behar da Izartu II programetan, inbertsioari dagokionez, aurreratuen dagoen bigarren helburua *Lurralde-integrazioa* dela, orain arte inbertsioaren erdia gastatu duena.

Alabaina, jarduera gehien biltzen duten helburuetan egindako inbertsioari begira, *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea*, *Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea* izenekoak dira programako erritmo orokorra finkatzen dutenak; Izartu I programan %84osatzen dute, eta Izartu II programan, berriz, %44.

25. Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2006 aldian egindako gastua guztizko inbertsioaren arabera.




Aurreko ekitaldietan bezala, egindako lanari erreparatzen badiogu (lortu nahi den helburura iristeko jarduerak barne hartzen dituzten esku-hartzeei begiratzen badiegu), **tokiko arduradunek hautemandako aurrerapenak**, egindakoaren arabera adierazleen bidez neurtutakoak, jardueren inguruko errealitatearen eta horien aurrerapenaren **ikuspegi deskriptiboagoa eskaintzen digu.**

Hala, bada, burututako finantza-alderdiei erreparatzen badiegu, Izartu I programaren onuradunen kasuan, Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea helburuari buruz tokiko arduradunek duten ikuspuntua da egindako jarduera inbertsioa baino askoz aurreratuago dagoela. Gauza bera gertatzen da *Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea, Gizarte-, kultura- eta laguntza-arloko zerbitzuak eta ekipamenduak eta Enpresaburuei eta ETEei laguntzea, Tokian tokikoa, turismoa eta ondarea sustatzea*. Alabaina, garrantzi gehien duten helburuek aurrerapen txikiagoa izan dute (bai inbertsioan bai jardueran): *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea, Lurralde-integrazioa.*

Izartu II programaren kasuan, tokiko arduradunek hautemandako aurrerapenari esker programaren helburuen lorpenari buruzko ikuspuntu errealagoa dugu. Horri jarraiki, programaren jarduerak egindako inbertsioarekin konparatzen baditugu, ikusi dezakegu batez besteko gauzatze-erritmoa inbertsio ekonomikoa baino txikiagoa izan dela, nahiko antzekoak badira ere. Datu hau garrantzitsua da, aurreko ataletan azaldu dugun bezala, ekintza batzuetan egin den gehiegizko gastua aurreikusitako guztizko inbertsioarekin alderatuta errealitatearen gainetik egon delako. Informazioko eta komunikazioko teknologiak sartzea izeneko helburu orokorraren barne, gastu ekonomikoa aurreikusitako inbertsioaren %100 baino handiagoa zen, jarduerarekin alderatuta, gauzatzeko erritmoa %56 zen, beste erritmoekiko aurreratuen.

Aurrerapen handiena izan duten helburuak garrantzitsuenak dira, izan duten inbertsioarekin parekatuta daudelarik: *Hiriaren irudia eta egoera hobetzea, ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea eta lurralde-integrazioa*. Era berean, *Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak* izeneko helburua da aurrerapen txikiena erakusten duena.

26. Grafikoa: Kohesioaren inguruko helburu orokorrak. 2001-2006 aldian egindako burutzeak guztizko inbertsioaren arabera.



5.2. HIRIALDEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUETAN IZANDAKO EMAITZAK ETA ERAGINAK


Kohesioaren inguruko helburu orokorretako bakoitzak izan duen aurrerapen ekonomikoaren eta egindako lanaren arabera eta barne hartzen dituen jardueren tipologiari eta udalerri onuradunei jarraiki aztertuz gero, **2001-2005 aldirako eta 2004-2008 aldirako Izartu programek lortutako emaitza eta eragin nagusien deskribapen zehatza** eskain dezakegu.

5.2.1. Lurralde-integrazioa:

2006. urtean, helburu honetan barne hartutako jardueren tipologiari jarraiki, berriz ere honakoak izan dira Izartu I programaren bidez lortutako aurrerapenik handienak: hurbilerraztasunarekin eta komunikazioak hobetzearekin zerikusia duten jardueren ingurukoak (sarbide mekaniko berriak, oinezkoentzat nahiz ibilgailuentzat, galtzadak oinezkoentzat bihurtzea...) eta hiri-bilbearekiko komunikazioak hobetzera eta inguruetako auzoak edo bizitegi-nukleoak azpiegituz hornitzera bideratutakoak.

Izartu II programei dagokienez, jarduerak 2006an denboraren erdira iritsi dira eta aurreikusitako helburura iristeko bidea jarraitu behar dute, orain arte helburuenganako bidean aurrerapen ona egin dutelarik.

27. Grafikoa: Lurralde-integrazioa. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2006.



Izartu I programak izandako emaitzen artean, urbanizazioan egindako hobekuntzak dira nabarmentzekoak: 150.000 m² inguruko espazio publiko landu da, eta gune horren %60 inguru erabilera publikoko espazioak gaitzeko baliatu da (lorategiak, plazak, oinezkoentzako guneak...) 70 km errepide hobetu dira ibilgailuentzako udalerrietako periferiako guneen sarbideetan; eta oinezkoen sarbiderako eta ibilgailuetarako 73.000 m bide berritu dira. Horrez gain, helburu honen barruan, **sarrerak** (hiru udalerritan sarrera mekanikoa ahalbidetu da), **sareak eta hornidurak hobetu dira** (15 bizitegi-auzotan berritu egin dira), honela hiri inguruko udalerrriak hiri barnean integratzeko helburuan aurrera egiten duten programak eta jarduerak garatu direlarik.

Horren ondorioak hautematen dira dagoeneko hiri-bilbearen kohesioan, sare egituratu eta hurbilerraza eratzen ari delako. Auzoen eta eremu jakin batzuen arteko eta horien eta hiriguneen arteko loturak sendotu dira: bideak oinezkoentzat bihurtu dira, pasabide berriak eraiki dira, komunikazioak hobetu dira... Gisa horretan hiriguneetako trafikoa arindu da eta hiriguneak herritar guztientzat hurbilerrazago izatea lortu da.

- ***Portugalete-Azetak** helburu horrekin, Sotera de la Mier kalean oinezkoentzako ibilbidea, autoentzako errepidea eta espaloia bukatu egin ditu. Honi esker udalerriko eremuen arteko kohesioa eta komunikazioa hobetu dira, oinezkoen eta garraiobide publikoaren baldintzak hobetu dira eta gune ezberdinetako hiritarren arteko harremana erraztu da. Bide segurtasunean, saltokiek eta inguruak orokorrean ematen duten irudian ere hobekuntzak eman dira.*
- ***Erandiok**, 25.530 m²-ko azalera urbanizatuz jarduera garrantzitsua garatu du, nabarmentzekoak dira batez ere Desanexio parkean eta kiroldegirako sarreran egindako obrak, hauen bitartez lehenago hiriaren barnean integratuta ez zegoen gunean komunikazioa hobetu baita, bide batez auzotar guztien bizi-kalitatea hobetuz.*

Jarduera hauen bidez, eta erabilera publikorako aisialdirako guneak prestatzeko jardueren bidez, hiriaren inguruko auzoek eta landa-nukleoek ematen duten irudia hobetzen ari da, eta hiriaren barne-egituran integratzen ari dira, bertako herritarren bizi-kalitatea hobetuz.

- ***Ortuellak** Ralera eta Golifar auzoak hiri barnealdearekin elkartu dituen oinezkoentzako bide handia eraikitzeaz gain, narriatutako azalera aisialdirako jardueretarako eta erabilera publikorako gune bilakatu du. Trenbidea estaliz eta oinezkoentzako bide berria eginez, udalerrriaren irudia hobetu da eta honela, bertako herritarren bizi-kalitatea hobetu da.*
- ***Donostia-Altzaren** sarreretarako eta aisialdirako guneetarako jarduera programek kaleetan lanak behar zituen auzo baten iparraldearen eta hegoaldearen arteko komunikazioa hobetu dute; auzoaren gune ezberdinen arteko kohesioa handitu da eta herritarren bizi-kalitatea hobetu da.*
- ***Erreenteriak**, irisgarritasun araudiari jarraiki, ibilbide eta parke berriak eraikiz erabilera publikorako guneak hobetu ditu. Hiriaren irudiari eta inguruneari ekarpen garrantzitsua egiteaz gain, irisgarritasunean eta auzo ezberdinen arteko komunikazioan hobekuntza handia eragin du parkeak. Gainera, ibilbide berriak Txirrita/Maleo eta Masti/Loidi industrialdeak erreenteriako hiri barnearekin oinezkoak, txirrindulariak eta ibilgailuak komunikatzen ditu.*

Jarduera hauen xedea denontzako hiri-egitura osoagoa eta erabilerrazagoa osatzea da, hiri-kohesioa hobetzeko helburuan aurrera egiteko asmoz.

Izartu II programaren onuradunek programa hasi zenetik hirugarren urtera emaitza onak izan dituzte eta helburu honetan aurrera egiten jarraitzen dute. **Bideetan 35.394 m² berritu dira, 4 km-ko errepideak hobetu dira eta oinezkoentzako 5 km-ko bideak eta espaloiak berritu edo eraiki dira; 7.495 m²-ko azalera birgaitu da eta 8.198 m²-ko erabilera publikorako gunea leheneratu edo hobetu da, 6 aldapa ala eskailera eta pasabide bat prestatu ziren irisgarritasuna hobetze aldera.**

2004-2008 aldiko programen aurrerapen garrantzitsuena oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bideak (kaleak, espaloiak, pasealekuak...) berreskuratze eta berritzeko jarduerena izan da, helburu nagusia zenbait guneren eta hiriaren barnearen arteko komunikazioa hobetzea delarik.

- ***Salvatierra/Agurainen** ekialdeko ingurabidea udalerriko Alde Zaharrean integratzeko aurrerapen handia eman da, alde zaharreko ingurutik kanpo dagoen auzo honetarako sarrera errazteko eta honela udalerriko ekintza sozio-kulturaletarako partehartzea ahalbidetzeko gainera pasabidea eraiki da.*

- **Sopuertako** eremuko jarduerak auzoen arteko konexioa hobetzen dute eta komunikazioen azpiegituren bidez, oinezkoei eta ibilgailuei mugikortasun eta segurtasun handiagoa ematen diete, eta udal zerbitzu sozialerako sarrerak errazten dituzte. Karral plazan, azokaren plazan eta San Pedro plazan eta inguruetan egiten ari ziren obrak 2006. ekitaldian bukatu egin dira. Gainera, Zangarro eta Gaztainondo Zahar auzoetarako sarbidean lanak egiten ari dira eta San Viator eskola inguruko 1.000 m²-ko bideak eta espaloiak hobetu dira eta Balugatik Gaztainondo Berri auzorako errepidea zuzendu egin da. Izartu programaren barne hartzen diren eremuetan 22.200 m² hobetu dira.
- **Vitoria-Gasteizen** Abetxukoko Zadorra ibaiaren gaineko zubia ia bukatuta dago. Aurreko zubiarekin alderatuta dimentsio eta gaitasun handiagoak dituen, gunek hiriaren gainontzeko guneekin duen komunikazioa erraztuko du: oinezkoentzako eta txirrindularientzako 645 m²; garraiobideetarako 475 m² eta ibilgailuen trafikoarentzako 1.064 m².
- **Güeñes** udalerria hurbilerrazago denetik bizilagunen bizi-baldintzak hobetu egin dira. Hiritik kanpo geratzen zen Zeribai Auzunea hurbilerrazagoa da egindako espaloi zabalarari eta argindarrari esker. Sodupe Goikoan ere bideak zabaltzen dira eta hiri barnealdea Osasun Zentroarekin komunikatuko duen espaloi berria eraiki da. Sollobenten udalerria hurbilerrazago bilakatzeko plana egokitu da. Guztira 15.000 m² urbanizatu direnez, udalerriaren irudia eta bizilagunen bizi-kalitatea hobetu egin dira.
- **Karrantza Harana/Valle de Carranzan** hiriarekiko komunikazioa eta zenbait bide hobetzeko asmoz martxan jarritako jarduerak Ambasaguas eta La Tejera zonaldeak konektatzeko 12 km bide eta espaloi egin dituzte.
- **Antzuolan**, Uzarragaren eta Lizarragako hiribidearen arteko bide berria eraikitzeko lanak bukatu dira: 1.090 m³-ko harri-lubeta, 1.423 m²-ko inprimazioa eta itsaspena, 436 m²-ko baldosa-zoladura, 194 m zintarri lerro, 131,53 m drainatzeko hoditeri, 205 m argindar eta edateko ura garraiatzeko 293 m-ko hoditeria.

Hurbilerraztasuna nabarmen hobetu da azpiegiturak hobetzearen bidez eta traba arkitektonikoak kentzearen bidez, gisa horretan pertsonen nahiz ibilgailuen joan-etorriak erraztu direlako.

- *Hala, bada, **Galdakaon** Aperribaiko zonalde altuko kaleak prestatu dira, 180 pertsonentzako zonalde honetako irisgarritasunaren baldintzak hobetuz.*
- ***Amorebieta-Etxanon**, Tantoriako espaloian egin beharreko hirigintza lanen %40 baino gehiago egin da, 1.041 oinezkoentzako eta 2.500 ibilgailuentzako segurtasuna babesteko eta arriskua gutxitzeko.*
- ***Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenan** oinarritzko zerbitzuetara edota Gallartako erdigunera oinezkoek duten irisgarritasuna hobetu da, izan ere Meatzari Etorbideko espaloiak zabaltu baitira, 2006an jadanik 1.235 m²-ko azalera urbanizatuta eta oinezkoentzako prestatuta daude. Prebentorioko aldaparen eta ikastetxe publikoen sarreraren urbanizazioa eraberritzeko eta Loredorako aldapa egiteko lanen bidez udalerrria hiri barnean integratzea ahalbidetuko da.*
- ***Andoainen** 4 arrapala eta 2 eskailera mekaniko paratzeaz gain, Oria ibaiaren gainean oinezkoentzako bidea eraiki da. Honi esker herritarrek Alluralde Udal Kiroldegira erosotasunez azkar iritsi ahal izango dira.*
- ***Leioan** Pikuetako zonaldean eta Gaztelubide eta Langileria kaleetan beharrezko lanak hasi ez diren arren, onuradunek itxaropen handia dute, lanak auzoak elkarrekin komunikatzeko garrantzizkoak izango direlako.*
- ***Bermeon** ere, Erriberako igogailua eraikiko den lur sailean egiten ari diren prestakuntzek itxaropen handia sortu dute, zonalde honetarako proiektu nagusia da eta.*
- ***Bergaran** eragin handien duten neurrietako bat irisgarritasuna hobetzea da. Hiria egitura hobetzeko eraberritzeko lanek (1.680 m²-ko bidea, 546 m²-ko aparkalekua, 798 m²-ko berdegunea, 1.218 m²-ko plazak eta espaloiak) auzoen irisgarritasuna eta komunikazioa hobetzen dute.*
- ***Zegaman** oztopo arkitektonikoak ezabatzean eta oinezkoentzako bideak eta sarrerek hobetzean, alde batetik 2.000 m-ko bideak berreskuratu dira, Antti auzoaren sarrera erraztuz; bestalde, Aitamarrenen Oria ibaiaren parean doan bide berrian 86 m² hobetu dira eta gainera, Aitamarren eta Txarape arteko zubiaren sarreran 400 m² egin dira.*


- **Trucios-Turtzioz** udalerrian, Muñañes eremura iristeko bideak eraikiz eta hobetuz, 700 m²-ko gunerako sarrera eraberritu da, herritarren %20aren onerako.
- **Otxandion** Alde Zaharra oinezkoentzat bilakatzeko jarduerak hasi dira: 3.000 m²-ko azaleran lanak egingo dira, oinarritzko hornikuntzak, bideak eta espaloiak hobetzeko eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeke.
- **Iurretan** ere modu honetan Uralde kalean sarrera eta oinezkoentzako bidea hobetu da eta Amilburo Iurreta plaza handitu da, erabilera publikorako 850 m²-ko azalera eta berdeguneetarako eta plazetarako 600 m²-ko azalera berreskuratuz.

5.2.2. Informazio eta komunikazioaren inguruko teknologiak barne hartzea:

Izartu I programei dagokienez, eta helburu honetan barne hartutako jarduera-motari jarraiki, lanerako eta informazioa zabaltzeko prestatutako kurtso eta lantegien ingurukoak dira aurreratuen doazen jarduerak. Zentzu honetan, informazio zentroen erabilpena bultzatzeko helburua duten neurriak batez ere informazioaren erabilpena, lana eta prestakuntza errazten duten azpiegiturak sortzeko jarduerak izan dira. Jarduera hauek 2006an helburu hau duten udal programetan garrantzi handikoak izan dira.

Izartu II programen artean informazioa zabaltzeko sareak, zentroak eta ekipamendua lortzeko jarduerak aurreratuenak dira.

28. Grafikoa: Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Berriak. Aurrerapena jarduketa-tipologiaren arabera. 2001-2006.



Izartu I programaren barnean 2006an udalerrietan IKTak sustatzeko beharrezko zentroak eta ekipamenduak (11 ekipamendu publiko berri ezarri dira) lortzeko asmoaren emaitza gisa aditzera eman daiteke 64 ikasgela edo lantegi izan direla eta ikastaroen nahiz zerbitzuen onuradun zuzenak 4.000 lagun baino gehiago izan direla. Ez da bakarrik informazioa eta ezagutza jasotzeko aukera hobetu, baizik zerbitzu eta lanpostu berriak ere sortu dira.

- *Honela, Loion Gizartearen Etxearen eraikineko baliabide informatiko berriei esker prestakuntzarako jarduerak garatu ahal izan dira, hauen bidez bizilagunak IKTbetara hurbiltzeko kultura baldintzak hobetu dira.*
- *Basaurin, lanerako sarbidea eta baliabide informatikoak eskaintzen dituen ikasgelak IKTBen eremuan sortzen diren lan aukeren berri izatea errazten du eta onuradun direnei informatikarako sarbidea eta prestakuntza ematen die. Jarduera hauen inguruan 214 leku eskaini dituzten 18 ikastaro egon dira.*
- *Barakaldo-Lutxana behartsuenen taldeari zuzendutako lantegi berezia prestatu du, talde hauei informatikarako sarbidea eta alfabetizazioa emateko asmoz. Era honetan, informaziorako, zerbitzuetarako eta ezagutzarako sarbidea erraztu da eta pertsona hauen heziketa maila hobetu da.*
- *Soraluze-Placencia de las Armas beste adibide bat da. Telelanerako zentroa egin da, langabezian dauden emakumeei zuzenduta, informazio eta komunikazioaren teknologia berriak (Internet) sustatzeko eta, aldi berean, pertsona horiek lan-munduan txertatzeko oso ona izan da.*

Izartu II programaren baitako jarduerak ere teknologia berriak eta komunikazioa sustatzeko helburuarentzat lagungarriak dira, sareak, zentroak eta ekipamenduak eskainiz eta informazioa zabaltzeko programen bidez.

- *Salvatierra/Agurainen udalerrian zuntz optikodun sarea sartzeko beharrezko softwarea, hardwarea eta osagai elektronikoak jarri dira. Halaber, izaera administratiboa duten udal zerbitzuak, bake epaitegia eta oinarritzko gizarte-zerbitzua interkonektatu dira, hiritarrek zerbitzu hauetara duten sarrera erraztuz.*
- *Igorren KZgune zentro bat sortu da jendeak IKTBetan prestakuntza izan dezan eta Kultur Etxeko ekipamendu informatikoa eguneratu da.*


- **Areatzan** udal zerbitzuak eskaintzeko bi web orrialde garatu dira eta 3 zerbitzu eskaintzen dira online. Emaitzak oso onak izan dira: 250 aldiz kontsultatu da orrialdea, posta elektronikoaren bitartez 120 iradokizun ebatzi dira, udal zerbitzuen eskaintza %30 hobetu da, hiritarrak Udaletxera joateko gastua %12 murriztu da eta IKTbak %30 gehiago erabiltzen dira.
- **Mutrikun** 2005ean administrazioaren prozesuak hobetzeko kanpoko teknikaria kontratatu denez, 2006an udaletxearen web orrialdearen bidez 9 prozesu egon ahal izan dira. "E-administrazioa" programa %36 aurreratu da, Internet pertsona gehiagok erabili duelarik.
- **Azpeitia** administrazioa digitalizatzen hasi da, Udaltzaingoak espedienteekin lan egin behar duenean, kexekin eta iradokizunekin, ondareari buruzko erreklamazioekin, laguntza eskaerekin...

5.2.3. Ingurumenaren ikuspegitik narriatutako inguruneak leheneratzea:

2006 urtean Izartu programak duen helburu honi dagokionez, honakoak dira aurreratuen doazen jarduerak: ibaiak, leku naturalak eta badiaren inguruak leheneratzea eta hirigintzari buruzko jarduerak (industria hondakinak botatzea, enpresak lekuz aldatzea eta bizitegitarako eta industriarako erabilerak berrantolatzea. Izartu I programaren aldiaren bukaeran, ahalegin handienak orain arte aurrerapen txikiena erakusten zuten jardueretan eman dira, adibidez: ibaiak bideratzeko edo ibaiertzak eta beste leku natural batzuk leheneratzeko lanak alde batetik, eta hiriaren ingurunea hobetzeko hirigintza eraberritzeko lanak bestetik.

Izarturen bigarren deialdian laguntzen diren programetan, emaitzak lortzeko erritmoari dagokionez, hiriko ingurumena hobetzeko jarduerak dira nabarmenenak, 2006an saneamenduaren, horniduraren eta argien azpiegiturari buruzko lanak garrantzitsuak izan badira ere. 2004-2008 aldirako Izartu programetan hau da helburu nagusia, jarduera eta inbertsio gehien dituen ere.

29. Grafikoa: Ingurumena. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2006.



Izartu I programaren baitan sartzen den narriatutako ingurumena leheneratzeko helburuak izan dituen azkeneko aurrerapenen barnean aipatu egin behar dugu 200.000 m²-ko espazio publikoa hobetu dela, 39.300 m² aurriak erautsita, 129.310 m² azalera urbanizatuz, 40.496 sarbide eta espaloi konponduz. Orobat, hornidurako lur azpiko sareetako 45.961 m lineal leheneratu eta/edo egokitu dira hirigunean. 85.166 m² parke, berdegune eta aisiarako gune egokitzea eta 10.375 m inguru natural leheneratzeak hiriaren ingurune naturalaren kalitatea hobetzeko izan duen garrantzia ere azpimarratzekoa da.

Hala, ingurune naturalean egindako jarduerekin batera, hiriaren barnean ere zenbait ekintza egon dira (urbanizazioa eraberritzea eta azpiegiturak berritzea batik bat), narriatutako zonaldeak berritzeko aurrerapen garrantzitsuak ere egon direlarik.

- **Galdakaon** Ibaizabalaren ertzak zaintzeko eta leheneratzeko jarduerak egon dira, honela gune irekiak sortuz (guneetan 3.600 m² hobetu dira) eta aisialdirako lekuak utziz (1.700 m-ko pasealekua eta olgetarako 600 m²), eta baita ingurunearen kalitatea kaltetzen duten osagaiak (zabortegia) ezabatuz.
- **Eibar** herrian Matsaria zonaldea urbanizatzeko eta hobetzeko, aurrerago narriatuta zegoen tokian 2.000 m² eraikuntza eta 678 m² bizitoki bota dira, gaur egun urbanizatzeko lanak egiten ari diren tokian hain zuzen. Programak aurreikusi dituen jardueren %75 egin dira jadanik.

- *Era berean, El Salvador gunea leheneratzeko eta berritzeko jardueraren baitan, Amurriok 3.687 m ibaiertz berreskuratu ditu eta 40.000 m² berdegune eta 738 m pasealeku egin dira. López-Aresketa Mendi leheneratzeari buruz, esan behar dugu 2006. urtean lanak amaitu egin direla, 20.000 m²-ko azalera berreskuratuz, eta parke tematikoa martxan jarri da.*
- *Laudion, Larraño auzoaren urbanizazioa berritzeko lanei esker, 7.400 m²-ko azalera hobetu da: ur eta argindar galderak gutxitu dira eta hiriaren saneamendua eta baldintza orokorrak hobetu dira.*

Izartu II programei dagokienez, orain arte 423.540 m² inguru leheneratu dira, hauetatik 198.000 m² egokitu den gune publikoa direlarik, bai inguru naturalean bai hiriko inguruan (oinezkoentzako lekuak, plazak, lorategiak, parkeak...). Horretaz gain, 97 sare eta zerbitzu ere hobetu dira.

Mota ezberdinetako jarduera hauen bitartez, hiriko auzoen eta narriatutako guneen irudia hobetu nahi da, garapen jasangarria jarraituz eta ingurunea zainduz beti.

- *Vitoria-Gasteizen, 185.000 m²-ko azalera prestatu da, hiritarrek erabil dezaten, Zadorra ibaiaren eremuan 1.100 m ibaiertz egokitu dira. 26.542 zuhaitz eta zuhamuxka landatuz, eremuaren ekologiaren eta paisaiaren kalitatea asko hobetu da.*
- *Zegaman 2006. urtean Aitamarrenen 7.300 m² parke leheneratu dira, eremua biztanleen aisialdirako eta olgetarako prestatu da, urtean 3.000 pertsona inguru joaten dira parkera.*
- *Ugao-Miraballes herrian Leitoki parkea leheneratu da, 27.000 m² azalera egokitu dira eta 750 m pasealeku prestatu dira, narriatutako gune publikoa berreskuratuz.*

2006. urtean zehar kaleen eta auzoen urbanizazioa eraberritzeko hainbat jarduera garatu da, helburua bera delarik.

- *Zeanurin biztanleentzako eremuak berreskuratu dira eta horri esker inguruko trafikoa hobetu da. 9.000 m² azalera urbanizatu da, hauetatik 4.500 m² oinezkoentzako eremu publikoetarako (bideak eta espaloiak) eta 2.100 m² plazak eta aisialdirako guneak.*

- *Durangon San Fausto auzoaren egokitze orokorrerako programaren baitan, 4.765 m² azalera hobetu da, San Fausto Frontoia kanpotik urbanizatu denean.*
- *Zalla herrian Mimetriz eta Aranguren eremuak egokitzean 91.627 m² azalera berreskuratu dira, eremuan horizontalki zein bertikalki seinaleak jarri dira eta saneamendu sarea hobetu da.*
- *Mallabian eremu publikoen urbanizazio eraberritzean 3.431 m² azalera prestatu dira.*
- *Honelako jarduerak izan dira herri gehiagotan ere: **Areatza** (Errukiñe eta Bekokalea), **Artzentales** (Traslaviña auzoa eta San Miguel plaza), **Astigarraga** (Mundarro - 21. gunea), **Balmaseda** (Alde zaharra), **Güeñes** (Sobarkotxa Auzunea, Zeribai Auzunea y Zubiko Auzunea, Sollobente Allende Zelaia), **Hondarribia** (Amute auzoa), **Ibarra** (San Inazio auzoa, Emeterio Arrese parkea), **Legazpi** (Arantzazu, San Inazio eta Laubide), **Lekeitio** (Alde zaharra, Aldamiz Etxebarria), **Markina-Xemein** (Artibai, Arretxinaga), **Orio** (Iturbide eta Pelotari kaleak leheneratu dira), **Portugalete** (Alonso Allende taldea, Eguzki eta Vicente Díaz parkeak, Bainuen kalea), **Soraluze-Placencia de las Armas** (azoka txikiaren plaza eta Andra Mariaren Jasokundearen elizaren ingurua), **Sopuerta** (san Pedro eta Karral plazak), **Tolosa** (Berostegi auzoa) eta **Zierbena** (kardeo).*

Jarduera hauen barnean, irizpide ekologikoei jarraiki eta ingurunea zaintzeko helburuaren arabera, 2006. urtean azpimarratzekoak izan dira hornidurarako eta saneamendurako oinarritzko azpiegiturak berritzeko jarduerak.

- ***Areatzak** adibidez 1.500 m hoditeri jarri ditu, 1.000 m kable berritu ditu eta hirigunean 800 m kanalizazio berri jarri ditu, neurri hauen bitartez herritarren bizi-kalitatea hobetu delarik eta ibaira botatako hondakinak gutxitu direlarik.*
- ***Igorrek** 1.518 m hoditeria berritu dituenaz, Elexaldeko hornidura sarea berritu du eta zahartutako hoditeriak kendu ahal izan ditu.*
- ***Zierbenak** 1.300 m-ko hornidura sare berria eta 2.443 m-ko saneamendua ipini ditu eta honela, udalerriaren inguruneari on egin dio, kontrolik gabeko hondakinak botatzeari utzi diolako.*

- **Antzuolak** Buztinzuriko biztanleen udal zerbitzu publikoak hobetu ditu: hornidura eta saneamendu sare guztiak berritu ditu, argindarrarentzako, energiarentzako eta telefonoetarako sareak lur azpian sartu ditu, eta telekomunikazio zerbitzu berriak sartu ditu.
- **Legazpik** ere garapen sostengarriaren eta energiaren erabilpen onaren irizpideei jarraiki, udal argiztapen-sistema (eguberrietako argiak) egokitu da eta gainera langabezian daudenentzako programa batek egin du egokitzapena.
- **Hernaniko** Elizatxo auzoan saneamendurako sareak hobetu dira (euriaren ura eta ur beltzak eramateko 357 m-ko hoditeria) eta hornidura egokitu da (edateko ura garraiatzeko 268 m) eta argiztapen-sistema publikoa 17 puntu berritu dira.
- **Bilbon** beste adibide batzuk daude, hornikuntzan 1.649 m hoditeria modernizatu dira eta saneamenduan 1.277 m; Arrasate-Mondragón herrian argiztapen-sistema lurrazpian sartu da eta Makatzenan edukiontziak jarri dira lurperatura; Hondarribian 400 m linea elektriko eta 630 m linea telefoniko lurperatu dira eta gainera, gas sarean 630 m berritu dira, euriaren uraren garraioan 1.500 m eta horniduran 420 m.


5.2.4. Enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babestea:

Izartu I programan, helburu honen baitako jarduera guztiak asko aurreratu dira, 2006an lortu nahi ziren emaitza gehienak eskuratu dira, eta baita kasu askotan hasierako aurreikuspena gainditu egin da.

Izartu II programak helburu honen barne batez ere ekonomia jardueren garapenerako azpiegiturak eta merkatal harremanak sustatu nahi dituzten jarduerak egiten ditu.

30. Grafikoa: Ekonomia-jarduera. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera.

2001-2006.



Izartu I programan enpresaburuak, ETEak, turismoa eta udal-ondarea babesteko jardueretan lortutako emaitzak nabarmenak dira: **jarduera produktiboetarako 48.000 m²-ko azalera garatu da; 38 ekipamendu; babesa jaso duten 97 enpresa-ekimen; 60 pabilioi eta lokal eraiki ala egokitu dira; 177 modulu, kurtso eta lantegi antolatu dira; 4.000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute; 3.879 pertsonak prestakuntza izan dute, 698 pertsonak lanerako laguntza eta babesa jaso dute eta 1.120 lanpostu berri sortu dira.**

Zentzu honetan, 2006 ekitaldian zehar enpresa berriak sustatzeko eta euskal udalerrietan lanpostua sortzeko hainbat jarduera egon da, eta helburu hauetarako beharrezko prestakuntza eta baliabideak eskaini dira.

- ***Lezon eta Oiartzunen** enpresak sortzeko eta ekonomia soziala garatzeko jardueraren bidez, lan merkatura iristeko zailtasunak dituzten taldeei lanerako aukera gehiago eskaini zaizkie. 101 onuradun egon da prestakuntza eta orientaziorako, lana topatzeko, lana sortzeko eta enpresa berriak sortzeko ekimenetan.*
- ***Merkatal sektoreari eta hirugarren sektoreari laguntza emateko asmoz, Trapagaran** haranean inbertsioei eta integrazioari babes emateko planak egin dira, plan hauetan, beste gauza batzuen artean, prestakuntzarako 27 kurtso egon direlarik. Plan hauei esker, 18 enpresa berri eratu da eta langabezia zeuden 41 pertsona lanpostu batera iritsi ahal izan dira.*

- ***Amurrion** enpresa berriak sortzea asko babestu da ekimen ezberdinen bitartez (ideien lehiaketa, ekintzaile berriei laguntza emateko 4 teknikari, ekintzaileentzako web orrialdea, enpresen hazitegia), 8 enpresa sortu dira eta 16 lanpostu sortu dira.*

Lanpostuak sortzeko asmoz, udalerrriaren ekonomia-jardueraren garapena babesten duten azpiegiturak osatzeko ekintzak egon dira.

- ***Zaldibar** herrian ibilgailu astunak industrialdera iristeko 800 m bide eraiki direnez, 20 enpresa han kokatu ahal izan dira.*
- *Helburu bera jarraituz, **Portugalete-San Roque** herrian merkatal jardueretarako 10 lokal berri eraikitzeko lanak hasi dira, honek eta espaloien berritze lanek zonaldeko ekonomia jarduera bultzatuko dute.*

Era berean, udalerrri batzuetan turismoaren sektoreari ere garrantzia eman zaionez, azterketak eta prestakuntzazko jarduerak egin dituzte, ekimenak antolatu dituzte, interes turistikoko eraikinak eta guneak eraberritu dira. Bestalde, lehentasuneko zenbait gune egokitu dira turismo berdea sustatzeko, eta hala sarbide eta ibilbide zaharrak birgaitu dira, hala nola mendi ibilietarako bidezidorrak.

- ***Irun** herrian azoka-esparruan eta jarduera kultural eta turistikoetan martxan jarri daitezken negozio berriei buruzko azterketak egin dira. Honela, 46 enpresa ekimen berri sortu dira. Prestakuntza emateko hainbat jarduera garatu da, azoketan, batzarretan eta beste gertaeretan, garbiketa industrialean eta turismoa antolatzeko sistemetan lanpostuak eman baitira eta 40 pertsona baino gehiagok onura atera diote.*
- ***Alonsotegin**, turismoari bultzada handia eman zaio. Baso-etxe zaharra eraberritu da eta gazteentzako aterpetxe gisa egokitu da. Bestetik, udalerrrian zeuden basoko bide zaharrak birgaitu dira, mendia ibilaldiak egiteko bidezidor gisa paratze aldera. Gainera, olgeta-gune bat prestatu da Zamundi aldean. Somo zonaldean 10.000 m²-ko baso didaktikoa eratze eta 50.000 m² azalera berreskuratzeko dituen Alonsotegi Naturguneko plana aurrera eramateko lanak martxan daude.*

- ***Ordizian** partaide asko izan dute (2.169 partaide) 32 azoka berezi antolatuta dira. Azpimarratu daitekeen beste aurrerapen batzuk Domingo Unanue eraikinean hiru lanpostu berri sortu dituen Turismo Bulegoa eta Elikaduraren Museoa dira.*

Lehen esan bezala, Izartu-ren bigarren deialdiko programei dagokienez, helburu hori zertxobait atzeratuta dago, gainerako helburuek duten aurrerapen-erritmoarekin parekatuta. Ekonomiaren garapena eta jarduera ekonomikoak bultzatzen dituzten azpiegiturak osatzeko jarduera batzuetan aurrerapenak izan dira.

- *Adibidez, **Arrigorriagan** Atxukarroko industrialdea guztiz eraberritu da. Poligonorako sarbideak eta aparkaleku berriak hobetu dira, segurtasun neurriak ezarri dira. Hauek 2007. urtean langileek zein herritarrek baloratu ditzaketen aurrerapenak dira.*
- ***Amorebieta-Etxanon** Urbano Larruzea kalea oinezkoentzako prestatzez bukatu dute. Hiriko udal zerbitzuetatik eta aisialdi guneetatik hurbil dagoen oinezkoentzako bide honek zonalde honetako merkataritza eta ostalaritza bultzatuko du.*
- ***Mutrikun** 2 enpresa berri sortu dira, jarduerak babesteko egiturak garatu direlako. Hiriko alde zaharra edertzeko gauzatu den proiektua aurrera doa. Fatxadak zaharberritzeko laguntzak eman dira, argiztatze sistema publikoa eta hondakinak jasotzea bezalako oinarritzko zerbitzuak hobetu dira, eta honela tokiko merkataritzaren eta ostalaritzaren beharrei erantzuna eman zaie.*
- ***Villabona** herrian Kale Nagusi osoa urbanizatzen ari dira. Honela udalerriko merkatal jardueren baldintzak asko hobetzen ari dira, lehen baino %10 saltoki berri gehiago ireki dira.*
- ***Etxebarriko** Lezama-Legizamon auzoan sartzeko oinezkoentzako pasealeku berriak langileek metroa erabiltzea erraztu du, honek lantokira arteko bidaia-denbora murriztu egin baitu.*
- *Helburu beraren baitan **Lemoizen** Armintza urbanizatzeko jarduerak izan dira, farmazia bat ireki da eta **Igorren** Kultur Etxea zabaldu da, honek enpresen eta ETEen biltzarretarako lokalak eta tokiko turismoa bultzatzeko erakustaldietarako 132 m²-ko aretoa eskaintzen duelarik.*


5.2.5. Hiriaren irudia eta egoera hobetzea:

Izartu I programaren helburuen artean, jarduera eta inbertsio gehien eskuratzen dituen da. Helburu hau bete nahi duten jarduerak haien artean oso ezberdinak dira, orokorrean hiru eremuetan kokatzen dira: urbanizazioa eraberritzeko eta hiriko azpiegiturak eratzeko jarduerak (auzoak eta kaleak berriz urbanizatzeko lanak eta zerbitzu- eta hornidura-sareak berritzea); hiriaren irudia hobetzeko proiektuak (eraikin bereziak, herriaren gune historikoak, etxebizitzak eta fatxadak) birgaitzea eta espazio eta ekipamendu publikoak hobetzera eta horiek gehiago erabiltzera bideratutako hainbat jardura (kaleak oinezkoentzat bihurtzea, hurbilerraztasunaren inguruko programak eta abar).

Jardueren aurrerapenari dagokionez, aurreko urteetako joera mantendu da 2006an: hiriaren irudia hobetzeko jarduerak garatu dira gehien orain arte. Horien ondotik ditugu berriz urbanizatzeko eta hiri-azpiegiturak berritzeko jarduerak, adibidez, eremuak eta ekipamendua hobetzeko programak.

Izartu II programari dagokionez, berriz urbanizatzeko eta hiri-azpiegiturak berritzeko jarduerak izan dira aurreratuenak. 2006an dena den, eremu eta ekipamendu publikoak hobetzeko ekimenetan aurrerapen handia izan da, eta neurri txikiago batean, hiriaren irudia hobetzeko proiektuetan ere.

31. Grafikoa: Hiri-kalitatea eta -ingurunea. Aurrerapena jardueren tipologiaen arabera. 2001-2006.



Izartu I programetan, 521 eraberritze-lan egin dira (etxebizitzetan eta eraikinetan), 100.000 m² baino gehiagoko azalera urbanizatu da berriz, zerbitzuko sareetan 30.000 m lineal baino gehiago berritu dira. Ildo horretan, jarduera hauen bitartez 16.000 m oinezkoentzako gune bilakatu dira, hirigintzako oztopoak kendu dira eta zenbait ekipamendutara heltzeko irisgarritasun baldintzak hobetu dira 15 udalerritan.

Honen eraginez, auzo eta hirietako erdiko gune askoren irudia goitik behera aldatu da onerako, kultura- eta ekonomia-aldeko erakarpena lortu da, eta bertan bizi direnen ongizatean eta bizitza-kalitatean eragina duten hirigintza-baldintzak hobetu dira. Honek gune hauetako bizitza sozialean eta ekonomikoan zein hirigintza-baldintzetan aurrerapenak areago piztu ditu, jendeak auzoetako edo hirietako erdiko gune hauetako oparotasuna antzematen duelako.

Hiriguneetako irudia eta baldintzak hobetzeko helburu honen baitan, herri eta hiri askotan birgaitze-lan garrantzitsuak egin dira: eraikinak berritu dira, hiriaren azpiegiturak hobetu dira, hiriari ekipamendu berria eman zaio. Jarduera hauek hainbat kasutan proiektu orokorren barnean eman dira, beste jarduera batzuekin batera aipatutako helburua betetzeko asmoz.

- **Deban** alde zaharra edertzeko programa burutu da, jendeak asko erabiltzen duen herriaren erdialdean bertan kokatutako narriatutako gunea birgaitu egin da. Fatxadak eta hiri-altzariak birgaitu direnez, bizilagunen zein bisitarien ongizatea hobetu da.
- **Elgoibarren** etxebizitzak birgaitzeko jarri den zerbitzuaren laguntzaz, alde zaharrean 63 etxebizitza birgaitu ahal izan dira. Beste ekintza batzuen bidez ere hiriaren irudia hobetzen ari da, adibidez, 19 edukiontzi lurperatu dira, haurren jokoetarako guneak egin dira...
- **Donostia-Altzan** herria birgaitzeko obrak burutu dira, guztira 22 fatxada, 11 estalki eta 39 etxebizitza birgaitzeaz gain, bi etxetako atarietarako sarrera hobetu da eta zerbitzu sarea berritu egin da. Donostia-Loiolan guztira 9 fatxada, 2 estalki eta 16 etxebizitza birgaitu dira, eta hemen ere etxeetako atarietako sarrerak hobetu egin dira eta zerbitzu sarea berritu egin da.

- **Lezoko** alde zaharrean 7.000 m²-ko azalera oinezkoentzako gune bilakatu da, eta hiri-altzari berria ezarri da, alde zaharreko sarrera eta argiztapen sistema hobetuz eta honela 6.000 pertsonen bizi-kalitatea hobetuz.
- **Zestaon** Txabarri birgaitzeko proiektuak martxan jarraitzen du, orain arte 80 familien bizi-kalitatetan eragin ona izango duten 6 eraikin birgaitu dira guztiz ala neurri batean.
- **Pasaian** 2006an alde zaharreko jauregia leheneratzeko obrak martxan jarri dira, berritutako jauregian udal bulego nagusiak ezartzeko asmoz. Eraikin berriak bizilagunei irisgarritasun eta zerbitzu hobeak eskainiko dizkie, gaur egun hainbat departamentuk jasaten dituzten irisgarritasun arazoak konponduz.
- **Urretxun** Izartu I programak ezarri zituen hiriaren irudia eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuak emaitza onak izan ditu: udalerrian 1.530 m²-ko espazio publikoak berreskuratu dira, oinezkoentzako 85 m bide prestatu dira, argiztapen sisteman 600 m sare hobetu dira, ibilgailuentzako 332 m kale ireki dira; 40 m hornikuntza sare hobetu dira, galtzaden 860 m² eta espaloien 390 m² eraberritu dira, 150 m² eraikuntza zahar bota dira eta 910 m² aisialdirako gune lortu dira... Honek guztiak hiriaren gune honetako irudia hobetu du eta gainera trafikoaren eta oinezkoen segurtasuna handitu du, irisgarritasun arazoak konpondu ditu eta merkataritzaren irudia hobetu du.
- **Santurtzin** Donibane auzoan egiten ari ziren obrak bukatu dira, bideetako baldintzak hobetu dira, auzoaren barneko komunikazioa eta irisgarritasuna hobetu dira, azpiegituretan segurtasun handiagoa lortu da eta bizi-kalitatea hobetu da. 11.063 m² bide eraberritu dira, 1.671 m-ko sare elektrikoa berritu da, 1.510 m oinezkoentzako kale eta 1.234 m eskailera birgaitu dira, 90 etxebizitza berritu dira eta 2.411 m² patio saneatu dira.

Izartu programan 2004-2008 aldirako deialdian aurkeztutako proiektuei dagokienez, auzoetan eta hiriko barnealdeko kaleetan 54.000 m²-ko azalera urbanizatu da, zerbitzuetarako eta hornidurarako 8.700 m kanalizatuz.

Kaleak, haurrentzako parke eta lorategi berriak edo hiri altzariak berritzea udalerrien irudia hobetzeko jardueren barne daude.

- **Mungian** Landetxoko obretan 4.100 m² espaloi eta 9.335 m² errepide berritu dira. Bestalde, oztopo arkitektonikoak ezabatzean eta hiri-altzariak ezartzean (39 zuhaitz, 38 argi, 15 eserleku eta 15 paperontzi) hiriko irudia eta baldintzak hobetu dira.
- **Derion** guztira 3.300 m² pasealeku, lorategi eta aparkaleku leheneratu dira, Gernikako Arbola kalean espaloia zabaltzeko egin da eta ILS enpresaren bidegurutzean biribilgune berria ezarri dute, bizilekuaren ingurua ederrago eta erosoago bilakatuz eta orden jasangarria bultzatuz.
- **Elgoibarren** hiria edertzeko eta birgaitzeko programa orain ere oso aurreratu dago; haurrentzako jolas parkeak eta lorategiak ezarri dira eta Alzola dorretxearen ingurua eta azokarako oinezkoentzako pasealekua leheneratu dira.
- **Bergaran** Artekale eta Harruriaga kaleak birgaitzean hiriaren irudia asko hobetu da, trafikoa gutxitu baita eta oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bideak antolatu baitira. Hobekuntza batik bat errepide berrian, azpiegitura eta zerbitzu sare hobetan eta hiri altzarietan nabari da.
- **Zegaman** elizaren, kultur etxearen eta udaletxearen kanpoaldea argiztatu egin da, errepideak egin dira, kaleak urbanizatu egin dira, oinezkoentzako guneak sortu dira eta sare zein hiri altzariak berritu dira. Honela, hiriaren erdialdearen irudia asko hobetu da.
- **Ugao-Miraballes** herrian Leitoki hiri-parkea leheneratu da eta magalean paseatzeko edo aisialdirako pasealekua eratu da, honela herritarren %85en baldintzak hobetu direlarik.
- **Lasarteren** kasuan, Oria ibaiaren inguruan oinezkoentzako ibilbidea handitu da eta honek harrera ona izaten ari du. Nabaria izan da hiriaren irudia hobetu dela, bai ibaiaren ertzetako pasealekuaren diseinua eta kalitatea bateratu direlako, bai errepide eta hiri altzari zaharrak berritu direlako.
- **Ataunen** 2006. urteko hobekuntza garrantzitsuenak Ergoienako auzoan eman dira, hiriaren baldintzak gaur egungo beharretara moldatu baititu (zerbitzu sareak, garraioetarako azpiegiturak eta udalerraren irudia).

Ondoko udalerrietan nabaria izan da hiri-zerbitzuak eta azpiegiturak (hornidura-sareak eta zerbitzuak) berritu eta berriz urbanizatu direla:


- **Segurako** alde zaharrean gas sarea ezarri denez eta zerbitzu sareak berritu direnez, bizi-kalitatea hobetu da. Biztanleen artean eragin handia izaten ari duen proiektua da hau, jarduera burutzen ari den gunean batik bat.
- **Arrigorriagan**, bestalde, zerbitzuetarako 3.982 m kanalizatu dira, saneamenduaren, euri-uren, elektrizitatearen eta telekomunikazioen hornidura sareak ezartzeko.
- **Amorebieta-Etxanon** aurreikusitako saneamendurako obren %69 burutu dira, errekan 1.800 m² berreskuratu dira, Urritxe eta Jauregizahar auzoek Kantarranas eta Etxano erreketara botatzen dituzten ur zikinek eragiten dituzten arazoak konpontzeko asmoz.
- **Legorretan** zerbitzuen eta azpiegituren sareetan lanak egin dira, ur horniduran (540 m²), euri-uretan (420 m) eta ur beltzetan (560 m), gasaren sarean (380 m), energia elektrikoetan (560 m), argiztapen sistema publikoan (580 m) eta telekomunikazio sareetan (660 m).
- **Ermuan** orobat, N-634 errepideak Aretilloko aldapan dauden etxebizitzetan duen eragin kaltegarria leuntzeko jarduerak sartu ditu bere programaren barne, pantaila akustikoa ezarriz.

5.2.6. Gizarte, kultura eta laguntzaren esparruko zerbitzuak eta ekipamenduak:

Amaitzeko, esan behar dugu Izartu I programak izandako aurrerapenik handienak ekipamenduak birgaitzea eta/edo eraikitzeke helburuak izan dituela. Honetaz gain, 2006an udal zerbitzuak eta programak sortzeko eta martxan jartzeko jardueretan aurrerapen garrantzitsuak egon dira.

Izartu II programaren onuradunei dagokienez, helburu honen baitako jardura gehienetan halaxe gertatzen da, ekipamendu sozio-kulturalak eraikitzea, birgaitzea eta egokitzean datza helburua.

32. Grafikoa: Ekipamenduak eta zerbitzuak. Aurrerapena jardueren tipologiaren arabera. 2001-2006.



Hala, Izartu I programarekin alderatuta, 2006an gizarte- eta kultura-erabilerako 31 ekipamendu eta azpiegitura berri sortu dira, horiek 32.000 erabiltzaile baino gehiago dituzte. 119 lanpostu berri sortu dira jarri diren zuzkidura eta zerbitzu berriei loturik; 17.658 m2 eraiki dira eta ingurunean lehengoratu den azalera askoz zabalagoa da.

Giza eta gizarte-garapenerako aukera-berdintasuna areagotzea (batez ere kaltetuen diren taldeen artean), herritar guztiak komunitatean garatzeko aukerak hobetzea eta hirugarren sektoreko jardura garatzea dira helburu honen baitan antzematen ari garen eragin nagusietako batzuk.

Honako jarduerak burutzen dira: adineko, emakumezko, immigrante eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonen laguntzeko ekipamendu eta zerbitzuak, gazteentzako, kultur taldeetarako eta oro har herritar guztientzako kultura- eta jolas-hornidurak, hirialdeak biziberritzeko jardueren eragina izango dutenei nahiz laguntza eta programen onuradunei informazioa emateko udal-zerbitzuak, eta abar._

- **Arrigorriagan** La Peña-Abusu auzoan Kultur Etxea eraiki dutenean, 3 lanpostu eta bizilagunentzako zerbitzu sozio-kulturaletarako 7 azpiegitura berri sortu dira: gazteentzako informazio bulegoa, KZGunea, udal liburutegia, sustapen sozio-kulturalerako programa, drogaletasunari buruzko zerbitzua, gizarte-hezkuntzan eskuartzeko taldea eta hirugarren adinezkoentzako ekintzak, kafetegia, aisialdirako, topaketarako gunea dituen erretiratuen eta pentsiodunen etxea.
- **Basaurin** Basozelai eta Kalero auzo etxeak egokitzeko obrek udalerritari 65 urtez gorakoentzako edo biztanleria osoarentzako gizarte ekipamenduak eskaini dizkiote. Hona ekipamendu berri hauen adibide batzuk: erretiratuen etxeak, musika taldeen saioetarako gelak, jolas-gelak, tokiko irratia, ikasgelak, etab. Bidearteko lokaletan haurrentzako, gazteentzako eta familiarentzako zerbitzua eta gizarte ekimenerako bulegoa ezarri dira.
- **Barakaldo-Cruces** herrian Retuertoko auzoan emakumeentzako larrialdietarako zentroa eraiki da, emakumeek eta umek bereziki prestatutako eraikinean profesionalen laguntza jaso ahal izan dezaten.
- **Legazpin** 12-16 urte bitarteko gazteentzako Gazte-Txokoa habian jarri da eta emaitzak espero zirenak baino hobeak izan dira. Zentroak (520 m²) orain arte 400 partaide baino gehiago izan ditu.
- Egunko Egoitzan leku gehiago eskaintzean herritarren eskaerak asebate dira berriz, eta **Santurtzin** bai Laguntza Zentroa bai Gizarte Jatetxea eraiki dira. Gaur egun emakumearentzako, helduentzako eta hirugarren adinezkoentzako programek 5.000 onuradun baino gehiago izan dute.

Izartu programak 2004-2008 aldian izan zituen udalerrri onuradunei buruz, azpimarratu egin behar dugu, erabilera kultural eta sozialetarako 6.798 m²-ko azalera prestatu dela eta 13.000 erabiltzaile izan ditzaketen 4 ekipamendu burutu direla.

- **Ugao-Miraballes** herrian oraindik zabaltzeke dagoen udal liburutegia (170 m²) birgaitu da, elbarriak eta mugikortasun murriztua duten pertsonak sartzeko erraztasunak dituen.
- **Igorren** orain arte 3.567,38 m² eraiki diren Kultur Etxean ekipamendu berria paratu da. Honi esker narriatutako herriaren gune bat lehenaratu ahal izan da,

auzo guztien erdialdean kokatzen den eraikin kulturala da hau. Baliabide informatikoak eta teknologia berriak eskaintzen ditu eta ETEen edo enpresen bileretarako lokalak eta tokiko turismoa bultzatzeko erakusketa gelak ere badauzka.

- ***Elorrion** liburutegiaren eta Kultur Etxearen lanak bukatu dira. Herritarrentzat zerbitzu soziokultural gehiago garatuko dituen 2.500 m²-ko azalerako ekipamendua ezarri da.*
- ***Zumaian** eraikitzeke dagoen Torreberriin 300 m²-k eraikina birgaituko da, 6 zerbitzu habian jarriko dira eta honela eskaintza turistikoa sendotuko da, 3.000 bisitari espero direlarik.*

Azkenik, helburu honen barne sartzen diren jardueren eraginak kualitatiboak dira, kuantitatiboak baino gehiago, eta epe luzeagoan ikusi ahal izango dira. Biztanleen partaidetzak, erabilpenak eta asetasun mailak erabakiko du jarduera hauen emaitza ona ala txarra.



1. ERANSKINA

IZARTU programaren

finantza-koadroak

2001-2005 ALDIKO IZARTU PROGRAMAK	GUZTIZKO INBERTSIOA	% DIRU-LAG.	DIRU-LAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNA K	INBERTSIOA BIZTANLEEN ARABERA	GASTUAREN PLANGINTZA ETA GAUZATZEA																			
						2001. URTEA			2002. URTEA			2003. URTEA			2004. URTEA			2005. URTEA			2006. URTEA			METATUTAKO GASTUAREN % GUZTIZKO INBERTSIOARE N ARABERA	2007. URTEA
						BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA				
						PLANGINTZA	GUZTIZKOA	%2001EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	%2002KO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	%2003KO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	%2004KO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	%2005EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2006EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ		
GUZTIZKOA	218.322.884 €	%66	148.645.827 €	341.836	549 €	32.820.125 €	14.059.337 €	%43	78.489.083 €	34.460.752 €	%44	65.611.992 €	46.326.332 €	%71	47.527.316 €	30.924.034 €	%65	43.226.331 €	36.968.608 €	%86	34.502.075 €	26.798.679 €	%78	%87	11.458.512.79
ARABA	9.327.739 €	%75	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	%5	3.202.026 €	742.977 €	%23	2.806.298 €	1.632.968 €	%58	2.837.116 €	1.341.425 €	%47	2.932.922 €	2.609.036 €	%89	1.546.860 €	979.272 €	%63	%79	1.222.278,58
Kantauri Arabarra	9.327.739 €	%75	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	%5	3.202.026 €	742.977 €	%23	2.806.298 €	1.632.968 €	%58	2.837.116 €	1.341.425 €	%47	2.932.922 €	2.609.036 €	%89	1.546.860 €	979.272 €	%63	%79	1.222.278,58
AMURRIO	4.663.869 €	%75	3.497.903 €	9.753	478 €	208.084 €	64.848 €	%31	1.046.507 €	352.771 €	%34	1.287.159 €	996.220 €	%77	1.804.126 €	1.111.479 €	%62	1.777.922 €	1.621.384 €	%91	517.169 €	535.448 €	%104	%100	
LLODIO	4.663.869 €	%75	3.497.902 €	19.694	237 €	981.912 €	- €	-	2.155.519 €	390.206 €	%18	1.519.139 €	636.748 €	%42	1.032.990 €	229.946 €	%22	1.155.000 €	987.652 €	%86	1.029.690 €	443.824 €	%43	%58	1.222.278,58
GIPIZKOA	67.095.780 €	%58	42.213.190 €	102.639	654 €	8.713.853 €	5.760.085 €	%66	23.301.491 €	12.731.817 €	%55	21.628.541 €	15.059.184 €	%70	10.026.875 €	7.449.988 €	%74	13.706.476 €	14.405.268 €	%105	11.114.967 €	11.041.413 €	%99	%99	1.178.229,38
Bidasoa Behea	6.053.627 €	%50	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	%57	4.484.520 €	2.379.040 €	%53	517.260 €	1.901.541 €	%368	- €	19.263 €		629.912 €	510.301 €	%81	576.032 €	714.070 €	%124	%102	0,00
IRUN	6.053.627 €	%50	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	%57	4.484.520 €	2.379.040 €	%53	517.260 €	1.901.541 €	%368	- €	19.263 €		629.912 €	510.301 €	%81	576.032 €	714.070 €	%124	%102	
Debabarrena	21.210.263 €	%75	15.907.697 €	29.413	721 €	2.872.952 €	2.262.289 €	%79	5.979.763 €	4.154.187 €	%69	6.130.121 €	3.903.341 €	%64	3.537.415 €	2.880.793 €	%81	4.824.274 €	4.159.995 €	%86	3.044.152 €	5.203.047 €	%171	%106	329.962,21
DEBA	2.421.263 €	%75	1.815.947 €	5.127	472 €	159.268 €	158.620 €	%100	96.810 €	129.053 €	%133	646.088 €	1.373.140 €	%213	986.955 €	273.242 €	%28	- €	- €		204.200 €	81.200 €	%40	%83	283.008,03
EIBAR	3.496.962 €	%75	2.622.721 €	4.274	818 €	138.855 €	49.764 €	%36	367.241 €	43.093 €	%12	801.349 €	22.279 €	%3	16.784 €	16.748 €	%100	1.517.987 €	1.121.673 €	%74	1.800.000 €	4.075.503 €	%226	%152	46.954,18
ELGOIBAR	3.411.395 €	%75	2.558.546 €	10.732	318 €	- €	- €	-	1.202.024 €	1.004.572 €	%84	1.041.754 €	42.254 €	%4	376.069 €	333.195 €	%89	1.370.925 €	1.124.922 €	%82	910.061 €	923.836 €	%102	%101	
MENDARO	2.688.307 €	%75	2.016.230 €	225	11.948 €	780.207 €	323.291 €	%41	1.098.796 €	343.263 €	%31	914.247 €	966.744 €	%106	397.111 €	430.794 €	%108	627.523 €	623.018 €	%99	- €	- €		%100	
MUTRIKU	3.587.230 €	%75	2.690.423 €	4.774	751 €	877.478 €	813.469 €	%93	939.345 €	939.345 €	%100	1.278.208 €	584.092 €	%46	435.113 €	833.367 €	%192	413.958 €	409.932 €	%99	- €	- €		%100	
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	5.605.106 €	%75	4.203.830 €	4.281	1.309 €	917.144 €	917.144 €	%100	2.275.547 €	1.694.861 €	%74	1.448.475 €	914.732 €	%63	1.325.382 €	993.447 €	%75	893.881 €	880.450 €	%98	129.890 €	122.508 €	%94	%99	
Ekialdeko ingurubidea	13.450.938 €	%75	10.088.204 €	28.617	470 €	945.993 €	227.695 €		3.941.710 €	1.929.947 €	%49	3.148.890 €	2.336.813 €	%74	3.495.830 €	1.219.611 €	%35	2.398.872 €	3.525.539 €	%147	4.731.463 €	2.694.592 €	%657	%89	606.535,24
ERREINTERIA	4.483.333 €	%75	3.362.499 €	20.194	222 €	318.536 €	227.695 €	%71	1.147.004 €	1.241.405 €	%108	1.065.363 €	1.322.773 €	%124	733.777 €	429.384.85 €	%59	373.777 €	883.781 €	%234	550.425 €	973.193 €	%177	%113	334.230,77
LEZO OIARTZUN	4.035.752 €	%75	3.026.814 €	5.753	702 €	195.930 €	- €	-	938.781 €	276.230 €	%29	881.502 €	899.141 €	%102	1.397.535 €	519.859 €	%37	465.211 €	1.261.724 €	%271	1.720.364 €	879.558 €	%61	%95	154.946,21
PASAJA	4.931.854 €	%75	3.698.890 €	2.670	1.847 €	431.527 €	- €	-	1.855.925 €	412.313 €	%22	1.202.024 €	114.899 €	%10	1.364.517 €	270.367 €	%20	1.556.242 €	1.380.034 €	%89	2.460.675 €	841.841 €	%34	%61	117.358,26
Donosti	10.070.573 €	%50	5.035.287 €	17.476	576 €	805.646 €	26.035 €	%3	3.691.225 €	10.117 €	%0	6.097.268 €	2.253.524 €	%37	587.791 €	682.597 €	%116	4.585.491 €	5.074.233 €	%111	2.024.069 €	2.024.365 €	%100	%100	0,00
DONOSTIA ALTZA	4.689.728 €	%50	2.344.864 €	10.999	426 €	375.178 €	20.725 €	%6	1.477.599 €	10.117 €	%1	2.990.035 €	2.200.602 €	%74	552.530 €	573.479 €	%104	1.858.513 €	1.755.926 €	%94	128.880 €	128.932 €	%100	%100	
DONOSTIA LOIOLA	5.380.845 €	%50	2.690.423 €	6.477	831 €	430.468 €	5.310 €	%1	2.213.627 €	- €	%0	3.107.233 €	52.922 €	%2	35.261 €	109.118 €	%309	2.726.978 €	3.318.307 €	%122	1.895.189 €	1.895.433 €	%100	%100	
Goierri	12.409.090 €	%50	6.204.545 €	20.217	579 €	2.598.350 €	2.110.147 €	%81	3.902.626 €	3.159.103 €	%81	4.578.012 €	3.602.446 €	%79	1.807.547 €	1.670.500 €	%92	916.273 €	838.547 €	%92	739.251 €	405.340 €	%655	%95	241.731,93
LEGAZPI	4.035.281 €	%50	2.017.641 €	9.278	435 €	322.823 €	361.998 €	%112	877.972 €	1.026.911 €	%117	1.382.635 €	1.492.093 €	%108	733.235 €	358.783 €	%49	509.660 €	521.079 €	%102	226.396 €	226.396 €	%100	%99	48.022,16
ORDIZIA	3.348.395 €	%50	1.674.198 €	9.222	363 €	580.980 €	583.952 €	%101	989.155 €	689.165 €	%70	1.366.535 €	1.003.941 €	%73	409.799 €	348.001 €	%85	266.406 €	225.041 €	%84	305.000 €	43.206 €	%14	%86	193.709,77
URRET XU	2.018.346 €	%50	1.009.173 €	417	4.840 €	550.278 €	196.191 €	%36	917.393 €	665.807 €	%73	866.810 €	144.380 €	%17	549.582 €	756.332 €	%138	47.780 €	- €	%0	207.855 €	135.738 €	%65	%94	
ZEGAMA	3.007.067 €	%50	1.503.534 €	1.300	2.313 €	1.144.269 €	968.005 €	%85	1.118.105 €	777.220 €	%70	962.031 €	962.032 €	%100	114.932 €	207.384 €	%180	92.427 €	92.427 €	%100				%100	
Tolosa	3.901.289 €	%60	1.950.645 €	2.659	1.467 €	312.103 €	466.468 €	%149	1.301.647 €	1.099.424 €	%84	1.156.990 €	1.061.519 €	%92	598.292 €	977.225 €	%163	351.653 €	296.653 €	%84	- €	- €		%100	0,00

2004-2008 ALDIKO IZARTU PROGRAMAK	GUZTIZKO INBERTSIOA	% DIRU-LAG.	DIRULAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNAK	INBERTSIOA BIZTANLEEN ARABERA	GASTUAREN PLANGINTZA ETA BETEARAZPENA									2004-2006 METATUTAKO GASTUAREN % GUZTIZKO INBERTSIOAREN
						2004. URTEA			2005. URTEA			2006. URTEA			
						BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			
PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2004EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2005EKO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2006KO PLANGINTZARI DAGOKIONEZ							
GUZTIZKOA	172.933.904 €	%62	109.000.000 €	439.471	578 €	1.333.335 €	8.069.433 €	%605	23.145.648 €	28.434.581 €	%101	56.642.343 €	43.932.945 €	%78	%47
ARABA	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	923.325 €	%107	1.233.391 €	4.766.903 €	%386	%105
Arabako Lautada	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	923.325 €	%107	1.233.391 €	4.766.903 €	%386	%105
SALVATIERRA/AGURAIN	2.697.133 €	%50	1.348.567 €	4.006	673 €	16.496 €	46.713 €	%283	429.405 €	543.995 €	%127	352.357 €	315.531 €	%90	%34
VITORIA-GASTEIZ	2.740.965 €	%50	1.370.483 €	1.745	1.571	16.764 €	- €	-	436.777 €	379.330 €	%87	881.034 €	4.451.372 €	%505	%176
GIPOZKOA	79.566.533 €	%63	45.910.511 €	178.969	445 €	561.598 €	2.870.360 €	%511	13.282.914 €	11.588.953 €	%87	26.852.634 €	16.662.211 €	%62	%39
Debagoiena	16.064.253 €	%35	5.432.614 €	21.465	748 €	66.454 €	536.612 €	%807	2.843.369 €	2.073.518 €	%73	5.200.025 €	4.205.285 €	%81	%42
ANTZUOLA	3.899.956 €	%30	1.169.987 €	1.899	2.054 €	14.312 €	28.285 €	%198	880.173 €	323.848 €	%37	1.727.061 €	1.111.745 €	%64	%38
ARRASATE/MONDRAGON	3.066.685 €	%50	1.533.343 €	2.800	1.095 €	18.756 €	68.406 €	%365	491.563 €	101.593 €	%21	988.610 €	1.739.919 €	%176	%62
BERGARA	4.852.280 €	%30	1.455.684 €	14.965	324 €	17.807 €	388.777 €	%2183	787.603 €	1.117.758 €	%142	843.819 €	793.115 €	%94	%47
ESKORIATZA	4.245.332 €	%30	1.273.600 €	1.801	2.357 €	15.579 €	51.144 €	%328	684.030 €	530.319 €	%78	1.640.535 €	560.506 €	%34	%27
Bidasoa Behea	4.560.420 €	%75	3.420.315 €	35.322	129 €	41.839 €	16.468 €	%39	1.181.580 €	562.155 €	%48	1.934.677 €	1.867.587 €	%97	%54
HONDARRIBIA	1.795.041 €	%75	1.346.281 €	1.301	1.380 €	16.468 €	16.468 €	%100	741.072 €	536.163 €	%72	1.037.501 €	1.815.913 €	%175	%132
IRUN	2.765.379 €	%75	2.074.034 €	4.206	657 €	25.371 €	- €	%0	440.508 €	25.992 €	%6	897.176 €	51.674 €	%6	%3
Debabarrena	9.362.146 €	%58	5.304.113 €	19.375	483 €	64.881 €	101.843 €	%157	1.502.412 €	896.301 €	%60	2.479.743 €	532.195 €	%21	%16
ELGOIBAR	3.637.165 €	%50	1.818.583 €	10.440	348 €	22.245 €	44.395 €	%200	587.516 €	323.860 €	%55	1.177.026 €	47.999 €	%4	%11
MUTRIKU	3.232.822 €	%50	1.616.411 €	4.775	677 €	19.772 €	55.280 €	%280	519.506 €	442.754 €	%85	495.778 €	137.525 €	%28	%20
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	2.492.159 €	%75	1.869.119 €	4.160	599 €	22.864 €	2.168 €	%9	395.390 €	129.686 €	%33	806.939 €	346.670 €	%43	%19
Donostialdea / Donostia San Sebastian	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	343.960 €	%88	800.867 €	535.617 €	%67	%36
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	343.960 €	%88	800.867 €	535.617 €	%67	%36
Mendebaldeko ingurabidea	10.307.646 €	%63	6.224.845 €	52.390	197 €	76.146 €	1.076.510 €	%1414	1.639.801 €	3.813.724 €	%233	2.894.737 €	1.708.701 €	%59	%64
ANDOAIN	2.156.467 €	%75	1.617.350 €	13.814	156 €	19.784 €	310.890 €	%1571	339.954 €	1.529.280 €	%450	696.068 €	703.729 €	%101	%118
ASTIGARRAGA	2.862.964 €	%50	1.431.482 €	2.634	1.087 €	17.511 €	39.000 €	%223	457.300 €	1.499.540 €	%328	669.737 €	191.444 €	%29	%60
HERNANI	3.160.597 €	%50	1.580.299 €	18.747	169 €	19.331 €	726.620 €	%3759	507.359 €	523.986 €	%103	842.390 €	795.932 €	%94	%65
LASARTE-ORIA	2.127.618 €	%75	1.595.714 €	17.195	124 €	19.520 €	- €	%0	335.188 €	260.918 €	%78	686.542 €	17.596 €	%3	%13
Ekialdeko ingurabidea	8.061.855 €	%67	5.120.911 €	14.672	549 €	62.641 €	3.248 €	%5	729.636 €	241.276 €	%33	3.184.701 €	667.644 €	%21	%11
ERRETERIA	2.545.015 €	%75	1.908.761 €	11.455	222 €	23.349 €	3.248 €	%14	404.117 €	24.523 €	%6	824.396 €	282.472 €	%34	%12
LEZO	1.814.917 €	%75	1.361.188 €	1.935	938 €	16.651 €	- €	%0	283.551 €	133.763 €	%47	583.263 €	13.985 €	%2	%8
OIARTZUN	3.701.923 €	%50	1.850.962 €	1.282	2.888 €	22.641 €	- €	%0	41.968 €	82.991 €	%198	1.777.042 €	371.187 €	%21	%12
Goierri	11.832.398 €	%65	7.467.665 €	10.370	1.141 €	91.348 €	151.110 €	%165	2.295.896 €	1.477.575 €	%64	4.888.023 €	3.265.193 €	%67	%41
ATAÜN	1.917.684 €	%75	1.438.263 €	1.514	1.267 €	17.593 €	9.198 €	%52	300.521 €	418.264 €	%139	617.204 €	238.554 €	%39	%35
LEGAZPI	2.949.969 €	%50	1.474.984 €	4.820	612 €	18.043 €	52.283 €	%290	471.934 €	471.938 €	%100	950.062 €	974.475 €	%103	%51
SEGURA	2.319.911 €	%75	1.739.934 €	1.225	1.894 €	21.284 €	44.802 €	%210	366.944 €	39.902 €	%11	1.015.429 €	481.931 €	%47	%24
ZALDIBIA	2.676.563 €	%50	1.338.281 €	1.517	1.764 €	16.371 €	- €	%0	425.948 €	105.899 €	%25	859.762 €	172.360 €	%20	%10
ZEGAMA	1.968.271 €	%75	1.476.203 €	1.294	1.521 €	18.057 €	44.827 €	%248	730.549 €	441.572 €	%60	1.445.565 €	1.397.873 €	%97	%96
Tolosaldea / Tolosa	8.653.296 €	%75	6.489.971 €	12.918	670 €	79.387 €	336.219 €	%424	1.380.504 €	1.054.535 €	%76	2.809.488 €	1.577.343 €	%56	%34
IBARRA	2.223.511 €	%75	1.667.633 €	4.208	528 €	20.399 €	324.199 €	%1589	351.025 €	654.917 €	%187	718.211 €	543.702 €	%76	%68
LEGORRETA	1.572.341 €	%75	1.179.256 €	1.351	1.164 €	14.425 €	12.020 €	%83	259.653 €	75.601 €	%29	519.305 €	389.347 €	%75	%30
TOLOSA	2.327.869 €	%75	1.745.901 €	4.083	570 €	21.356 €	- €	%0	368.258 €	47.578 €	%13	752.677 €	49.262 €	%7	%4
VILLABONA	2.529.575 €	%75	1.897.181 €	3.276	772 €	23.207 €	- €	%0	401.568 €	276.439 €	%69	819.295 €	595.032 €	%73	%34
Urola Kosta	8.250.746 €	%58	4.594.747 €	10.342	798 €	56.207 €	648.								